

## BESTELAKO XEDAPENAK

### ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

## 3682

*EBAZPENA, 2020ko irailaren 9koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, mugikortasun eraginkor eta jasangarria sustatzeko pizgarri-programaren (Moves II Programa) oinarri arautzaileak onartzen, deitzen eta argitaratzen dituena – 2020. urtea.*

EEE Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa da, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailaren mendekoa, eta energia aurreztea eta energia-eraginkortasuna, energia-baliabide berriztagarriak, energia-dibertsifikazioa eta energia-azpiegituren sustapena bultzatzeko jardunak bete behar ditu Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eremuan.

Ildo horretan, EEE hainbat ekintza garatzen ari da 2030eko Euskadiko Energia Estrategian (3E-2030) bildutako helburuak betetzeko. Jardun horien artean aipatzekoa da zenbait laguntza programa abian jartzen dituela, energia-eraginkortasuna sustatzeko eta energia berriztagarriak aprobetxatzeko jarduera-sektore guztietan.

Hortaz, dirulaguntzen programa hau diseinatu da honako helburu nagusi honi begira: salgaien garraioan eta pertsonen mugikortasunean energiaren kontsumoa arrazionalizatzeari eta petrolio-arekiko mendekotasuna murrizteari. Horretarako, garraio modu efizienteagoak lortzeko, energia berriztagarriak erabiltzeko, energiari dagokionez efizienteagoak diren teknologiak erabiltzera eta karga elektrikoa gauzatzeko eta erregai alternatiboz hornitzeko beharrezkoak diren azpiegiturak eskuratzera bideraturiko inbertsioak, proiektuak edo planak sustatuz, EAEn.

Adierazitako guztiagatik,

#### EBATZI DUT:

Lehenengoa.– EEEren zuzendaritza-organoen eginkizunak arautzen dituen otsailaren 3ko 10/2015 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik, martxoaren 5eko lehengo 64/1985 Dekretua bigarrenez aldatzen duena, 2020ko mugikortasun eraginkor eta jasangarria sustatzeko pizgarri-programari (Moves II Programa) dagozkion oinarri arautzaileak onartzea eta deialdia egitea. Programaren edukia ebazpen honekin batera doa, eranskin gisa.

Bigarrena.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Lege Dekretuaren 49.2 artikularekin bat etorritik, 2020ko mugikortasun eraginkor eta jasangarria sustatzeko pizgarri-programari (Moves II Programa) dagozkion oinarri arautzaileak onartzen dituen ebazpen hau, oso-osorik, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Bilbao, 2020ko irailaren 9a.

Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,  
IÑIGO ANSOLA KAREAGA.

2020ko irailaren 16a, asteazkena



Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)  
Europa egiteko modu bat

## Mugikortasun eraginkor eta jasangarria sustatzeko pizgarri- programa (Moves II Programa)

– 2020. urtea –

### Oinarriak

Energiaren Euskal Erakundea.  
Urkixo zurmark, 36-1. solairua.  
48011 Bilbao.  
Tel.: 94 403 56 00.

2020ko irailaren 16a, asteazkena



Eskualde Garapenerako Europako Funtsa (EGEF)

Europa egiteko modu bat

## Diruz laguntzekoak diren jardueren laburpena eta laguntzen zenbatekoak

1. jarduera. Energia alternatiboko ibilgailuak eskuratzea.

**Txatar bihurtu gabe ibilgailu bat eskuratzeko dirulaguntzaren zenbatekoak:**

Motorizazioa	Kategoria	TOGM (kg)	Ibilgailuaren salmentako muga-prezioa (€)	Dirulaguntza (€) Txatar bihurtu gabe		
				Pertsona fisikoak, Autonomoak, Jabe.Erkid., Erakunde publikoak	ETE	Enpresa handia
PGL, autogasa edo bifuelua	N2	—	—	3.600	2.250	1.800
	N3	18.000 baino gutxiago		5.400		
		18.000 edo gehiago		13.500		
GNK, GNL edo bifuelua	N2	—		4.500	2.250	1.800
	N3	18.000 baino gutxiago	6.300	5.400		
			18.000 edo gehiago	13.500	13.500	

Motorizazioa	Kategoria	Autonomia (km)	Ibilgailuaren salmentako muga-prezioa (€)	Dirulaguntza (€). Txatar bihurtu gabe		
				Pertsona fisikoak, Autonomoak, Jabe.Erkid., Erakunde publikoak	ETE	Enpresa handia
Erregai-pila (FCV, FCHV)	M1	—	—	4.000 (1)		
PHEV, REEV, BEV	M1	30 edo gehiago eta 90 baino gutxiago	45.000 (3)	1.900 (1)	1.670	1.600
		90 edo gehiago		4.000 (1)	2.920	2.190
PHEV, REEV, BEV, erregai-pila (FCV, FCHV)	N1	30 edo gehiago	—	4.400 (2)	3.630	2.900
	M2, N2	—		8.000	6.000	5.000
	M3, N3	—		15.000		
BEV	L3e, L4e, L5e; P ≥ 3kW	70 edo gehiago	10.000	600		
				800		
				750	750	700

- (1) M1 kategoriako ibilgailuak mugikortasun urriko pertsona fisiko desgaituek eskuratzen dituztenean, eta ibilgailu egokitua izanez gero, laguntzaren zenbatekoa 750 € gehituko da.
- (2) N1 kategoriako ibilgailuak mugikortasun urriko profesional autonomo desgaituek eskuratzen dituztenean, eta ibilgailu egokitua izanez gero, laguntzaren zenbatekoa 750 € gehituko da.
- (3) **53.000 € 8 plaza BEV ibilgailuetarako, baldin eta azken onuraduna edo hartzailea administrazio publiko bat edo onura publikoko entitate edo erakunde errekonozitu bat bada, nagusiki, gizarte-zerbitzuak edo irabazi-asmorik gabekoak ematen dituena.**

2020ko irailaren 16a, asteazkena



Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

Europa egiteko modu bat

Ibilgailu bat txatar bihurtuta ibilgailu berri bat eskuratzeko dirulaguntzaren zenbatekoak (aurreko taularekiko igoera duten zenbatekoak baino ez dira adierazten):

Motorizazioa	Kategoria	Autonomia (km)	Ibilgailuaren salmentako muga-prezioa (€)	Dirulaguntza (€) Txatar bihurtuta		
				Pertsona fisikoak, Autonomoak, Jabe.Erkid., Erakunde publikoak	ETE	Enpresa Handia
Erregai-pila (FCV, FCHV)	M1	—	—	5.500 (1)		
PHEV, REEV, BEV	M1	30 edo gehiago eta 90 baino gutxiago	45.000 (3)	2.600 (1)	2.300	2.200
		90 edo gehiago		5.500 (1)	4.000	3.000
PHEV, REEV, BEV, erregai-pila (FCV, FCHV)	N1	30 edo gehiago	—	6.000 (2)	5.000	4.000
	M2, N2	—		—	—	—
	M3, N3	—		—	—	—
BEV	L6e	—	—	—	—	—
	L7e	—		—	—	—
	L3e, L4e, L5e; P ≥ 3kW	70 edo gehiago		10.000	—	—

- (1) M1 kategoriako ibilgailuak mugikortasun urriko pertsona fisiko desgaituek eskuratzen dituztenean, eta ibilgailu egokitua izanez gero, laguntzaren zenbatekoa 750 € gehituko da.
- (2) N1 kategoriako ibilgailuak mugikortasun urriko profesional autonomo desgaituek eskuratzen dituztenean, eta ibilgailu egokitua izanez gero, laguntzaren zenbatekoa 750 € gehituko da.
- (3) 53.000 € 8 plazako BEV ibilgailuetarako, baldin eta azken onuraduna edo hartzailea administrazio publiko bat edo onura publikoko entitate edo erakunde bat bada, nagusiki, gizarte-zerbitzuak edo irabazi asmorik gabekoak ematen dituen.

Txatar bihurtzearen betekizunak M1 eta N1 kategorietako ibilgailu <b>BERRIAK</b> eskuratzen direnean (txatar bihurtzeagatik laguntza-igoera ez da aplikatzen demostrazio-ibilgailuak eskuratzen direnean).
<ul style="list-style-type: none"> <li>Txatar bihurtu beharreko ibilgailuak M1 edo N1 kategoriakoak izan behar du.</li> <li>Espanian matrikulatuta egon behar du, 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen.</li> <li>Txatar bihurtu beharreko ibilgailuak indarrean eduki behar zuen Ibilgailuen Azterketa Teknikoa 569/2020 Errege Dekretua indarrean hasi zenean, edo, hala badagokio, COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko eman zen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua argitaratu zen datan. (Aurkeztu IAT txartelaren aurrealdea eta atzealdea edo DGT txostena).</li> <li>Laguntzaren eskatzaileak txatar bihurtutako ibilgailuaren titulartasuna eduki behar du Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan, gutxienez, laguntza-eskabidearen dataren aurreko hamabi hilabete lehenagotik. (Aurkeztu Zirkulazio Baimenaren edo DGT txostenaren kopia). Beraz, ibilgailua txatar bihurtu behar da laguntza-eskabidearen dataren ondoren. Oinarri hauek argitaratu aurretik 1. jardueraren eraginpean egoteko moduan dauden ibilgailuak eskuratzen direnean, eskatzaileak jarduera profesionalik ez duten edo jarduera ekonomikorik garatzen ez duten pertsona fisikoak direnean, eskatzaileak txatar bihurtutako ibilgailuaren titulartasuna eduki behar du, gutxienez, laguntza-eskabidearen dataren aurreko hamabi hilabete lehenagotik, eta egun horretatik aurrera txatar bihurtu beharko da ibilgailua.</li> <li>Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren azken ordainagiria aurkeztu beharko du, gutxienez 2019tik behar bezala ordaindu duela egiaztatuta.</li> <li>Ibilgailuak Tratatzeko Zentro Baimenduak Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren izenean egindako ibilgailuaren «Behin betiko bajaren ziurtagiriaren» kopia aurkeztu beharko du interesdunak, edo, bestela, Prohibitziako Trafikoko Buruzagitzaren Ibilgailuen Erregistro Orokorren txostena, behin betiko baja egiaztatzen duena.</li> </ul>

2020ko irailaren 16a, asteazkena



## Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

## Europa egiteko modu bat

Ibilgailuak eskuratzearen edo rentingaren fakturaren betekizunak
<ul style="list-style-type: none"> <li>Laguntza-eskabidea erregistratu zenekoaren ondoko data (edo ekainaren 18tik aurrera 1. jardueraren eraginpean egoteko moduan dauden ibilgailuak eskuratzen direnean, eskatzaileak jarduera profesionalik ez duten edo jarduera ekonomikorik garatzen ez duten pertsona fisikoak direnean), faktura onuradunaren izenean emana, 2.1 oinarrian adierazitakoaren arabera.</li> <li>Autofakturak ez dira onargarriak.</li> <li>Eskuratutako ibilgailuaren matrikula edo bastidore-zenbakia, marka, modelo eta bertsioa adierazi behar dira.</li> <li>M1 eta N1 kategorietako ibilgailuetan: BEZa edo IGICa ezarri <b>aurretik</b>, «Moves II Programa» dela-eta, fabrikatzaileak/inportatzaileak edo saltokiak M1 eta N1 kategorietako ibilgailuak eskuratzeko gutxienez 1.000 euroko deskontua egin duela agertu behar da. (Rentingaren kasuan, ibilgailuaren azken prezioan jaso behar da, fabrikatzailearen edo saltokiaren deskontua haren salerosketa-fakturari adierazita). Gainera, BEZa edo IGICa ezarri <b>ondoren</b>, programari dagokion laguntzaren zenbatekoa adierazi behar da, «Moves II Programaren» konturako Oinarrietan ezarritakoari jarraikiz.</li> </ul> <p>Oharra: laguntzaren azken hartzailearekiko renting kontratuan zera adierazi behar da, laguntza jasoko balitz, ordaindu beharreko kuotak berriz kalkulatuko lirakeela, laguntzaren zenbatekoa kenduta.</p>

Demostrazio-ibilgailuetarako betekizun osagarriak
<ul style="list-style-type: none"> <li>M1 eta N1 kategorietako ibilgailu elektrikoak eta erregai-piladunak soilik, 9 hilabeterainoko antzinasuna dutenak lehen matrikulazioetik: <ul style="list-style-type: none"> <li>laguntza-eskabidearen erregistro-datara arte.</li> <li>fakturaren datara arte, deialdia argitaratu baino lehen eskuratutako ibilgailuetarako (1. jardueraren eraginpeko ibilgailuak eskuratzen direnean, eskatzaileak jarduera profesionalik ez duten edo jarduera ekonomikorik garatzen ez duten pertsona fisikoak badira).</li> </ul> </li> <li>Laguntzaren azken hartzaileari ibilgailua saltzen dion kontzesionarioak, saltokiak edo fabrikatzaileak/inportatzaileak izan beharko du titularrak.</li> <li>Kontzesionario edo saltoki bakoitzeko, gehienez lau demostrazio-ibilgailu izan daitezke diruz laguntzekoak.</li> <li>Ibilgailuaren zirkulazio-baimena aurkeztu beharko da, laguntzaren azken hartzaileari ibilgailua saltzen dion kontzesionarioaren, saltokiaren edo fabrikatzaile/inportatzailearen izenean.</li> <li>Kontzesionarioaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, onuradunak eskuratutako ibilgailuak lehen matrikulazioan inolako laguntzarik ez duela jaso adierazita. Horrez gain, kontzesionarioaren IFK adieraziko da, baita Moves II, laguntza-programaren esparruan orain arte saldatuko demostrazio-ibilgailuen kopurua ere.</li> </ul>

## 2. Jarduera. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura ezartzea.

Eskatzaile-mota	Laguntza	Muga, hartzaile eta deialdi bakoitzeko (€)
Pertsona juridikoak eta beste entitate batzuk, nortasun juridikoa izan zein ez, A, B, C, D, E, F, G, J, R o W letrarekin hasitako IFZ dutenak (ikus 2. oinarria, 2. jarduera, d) ordinala)	% 30	100.000
Pertsona fisikoak, jabeakideen erkidegoak eta erakunde publikoak (2. oinarriko 2. jardueraren a), b), c) eta e) ordinalen deskribapenaren arabera)	% 40	

## 3. Jarduera. Bizikleta elektrikoak mailegatzeko sistemak ezartzea.

Eskatzaile-mota	Laguntza	Muga, hartzaile eta deialdi bakoitzeko (€)
Pertsona juridikoak, autonomoak eta erakunde publikoak (2. oinarriko 3. jardueraren deskribapenaren arabera, 2. oinarriko 1. eta 2. jardueren a), d) eta e) ordinalai loturik)	% 30	100.000

## 4. Jarduera. Lanerako mugikortasun jasagarriko neurriak ezartzea.

Eskatzaile-mota	Laguntza	Muga, hartzaile eta deialdi bakoitzeko (€)
Merkataritza-jardueraren duten eskatzaileak	% 40	60.000
Merkataritza-jarduerarik ez duten eskatzaileak	% 50	

Taula hauek laburpen gisa ematen dira, eta ez dute jasotzen laguntzen kalkulu xehatua. Batzuk eta besteak bat ez badatoz, agiri garatuan adierazitakoa hobetsiko da.

2020ko irailaren 16a, asteazkena



Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

Europa egiteko modu bat

## Mugikortasun eraginkor eta jasangarria sustatzeko pizgarri-programa (Moves II Programa).

### 1. Programaren xedea eta laguntzaren izaera.

1.1. Mugikortasun eraginkor eta jasangarria sustatzeko pizgarri-programa (Moves programa) arautzeko otsailaren 16ko 72/2019 Errege Dekretuaren bidez (aurrerantzean, «72/2019 ED»), Estatuko Aldizkari Ofizialaren 41. zenbakian argitaratua, 2019ko otsailaren 16an, laguntzak zuzenean ematea arautzeko oinarriak ezarri ziren, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 22. eta 28. artikuluei jarraituz, laguntza horiek energia-eraginkortasuneko, jasangarritasuneko eta energia alternatiboan erabilera bultzatzeko irizpideetan oinarritutako mugikortasunean laguntzen duten zenbait jarduerari emateko helburuz, Espainiako lurralde guztian ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura egokiak ezartzea barne.

72/2019 EDko zio-azalpenean hauxe azaltzen du zehazki:

«Espainian, beste herrialde batzuetan bezala, berotegi-gasen isuria gorantz egiten ari da; hala, CO<sub>2</sub> isuria, hots, berotegi-gas nagusiaren isuria, % 4,4 handitu da 2017an, aurreko urtekoaren aldean, eta hori urte arteko igoera handiena izan da 2002. urtetik. Isuri-gorakada horri aurre egiteko, erregai fosilen kontsumoa murrizteko neurriak hartu behar dira. Lehentasunezkoa da garraio-sektorean esku hartzea, hura izanik energiaren azken kontsumo handiena duena Espainian, ia % 42. Kontsumo horretatik, errepideko garraioak % 80 hartzen du, eta petrolioaren deribatuen mendekotasuna ia % 95koa da.»

«Garraioan, maila globalean, mugikortasun jasangarria izateak onurak eragiten ditu energia-dibertsifikazioaren aldetik zein petrolio-produktuen mendekotasunaren aldetik, bai eta CO<sub>2</sub> isuriak zein isuri kutsagarriak murrizten dituelako ere, horrela gure hirietako airearen kalitatea hobetzen eta kutsadura akustikoa gutxitzen lagunduz, eta bertako energien kontsumoa sustatuz, iturri berriztagarrietakoena bereziki. Gainera, garraio-sektorean teknologia alternatiboak sustatzeak, egungo ekonomia-testuinguruan, erronka eta aukera bat dakar zenbait sektore estrategikorentzat, hala nola energia-sektorearentzat, automobilgintza-sektorearentzat, eta informazioaren eta komunikazioen teknologien sektorearentzat, bai industriaren eta teknologien aldetik, bai energia eta ingurumenaren aldetik.»

Ildo horretan, 2020ko ekainaren 17ko BOEn (169. zenbakia), 569/2020 Errege Dekretua (hemendik aurrera, «569/2020 ED») argitaratu zen, ekainaren 16koa, Mugikortasun Eraginkor eta Jasangarria Sustatzeko Pizgarri Programaren (hemendik aurrera, «Moves II») bigarren edizioa arautzen duena, lehen edizioaren betekizun jakin batzuk aldatzeko, eta, horrela, programarako funtsak hobeto balia daitezen lagundu eta garraio-sektoreko deskarbonizazio-helburuak lortzeko bidean aurrera egitearren, Energia eta Klimari buruzko 2021-2030 aldirako Plan Nazional Integratuan ezarritakoari jarraikiz. Moves II programak laguntzak zuzenean emateko oinarri erregulatzaileak ezartzen ditu, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 22. eta 28. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, energia-eraginkortasuneko, jasangarritasuneko eta energia alternatiboan erabilera bultzatzeko irizpideetan oinarritutako mugikortasuna bultzatzeko jardueretarako, lurralde nazional osoan ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura egokiak ezartzea barne.

Laguntzak zuzenean emango dira; izan ere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 22.2.c) eta 28. artikuluen arabera, norgehiagokarako deialdi publikoa egiteko zailtasuna justifikatzen duten arrazoi sozial eta ekonomikoak daude tartean. Energiari eta Klimari buruzko 2021-2030 aldirako Plan Nazional Integratuak ezarritako helburuak lortzeko garraio-sektorearen deskarbonizazioari heldu beharra ikusirik, eta kontuan hartuta diruz laguntzekoak diren jardueren tipologiai —nagusiki erregai fosilak darabiltzaten ibilgailuen parke nazionalaren berrikuntza sustatzea, eta, ibilgailu horien ordez, energia alternatiboez propulsatutako ibilgailuak txertatzea,



### Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

#### Europa egiteko modu bat

ibilgailu elektrikoak barneratzeko bidea erraztuz eta haiek kargatzeko azpiegitura hedatuz— ez duela laguntzak elkarren artean konparatzeko aukerarik ematen, aldez aurretik ezarritako betekizun batzuk bete behar dira, energia-eraginkortasunari, jasangarritasunari eta energia alternatiboen erabilera bultzatzeari loturik.

Aldi berean, pizgarri-programa hau lagungarri izango da nitrogeno oxidoen emisioak —errepide bidezko garraioaren sektorea da horien erantzule nagusia, eta hirietan arazo handi bat suposatzen du herritarren osasunarentzat— murrizteko, eta, bide batez, kutsatzaile atmosferiko jakin batzuen emisio nazionalak murrizteari buruzko 2016ko abenduaren 14ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/2284 Zuzentarauan emisioak murrizteko ezarritako helburuak eta Europan kalitatezko aire-ingurunea eta atmosfera garbiago bat bermatzeari buruzko 2008ko maiatzaren 21eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/50/EE Zuzentarauan jasotakoak betetzen joateko. Kutsadura Atmosferikoa Kontrolatzeko Programa Nazionala da kutsatzaile atmosferikoak murrizteko helburuak betetzeko tresna nagusia, eta mugikortasun eraginkor eta jasangarriarekin zerikusia duten neurriak dira nitrogeno oxidoen atmosferarako emisioak nabarmen murrizteko ardatz nagusia.

Lehen edizioaren aldean, aldaketa nagusiek aurrekontu-zuzkiduraren igoerarekin dute zerikusia, eta, horrez gain, jarduera hautagarrien kopurua handitzearekin, Udalei pandemiaren ondoko mugikortasun-premietara egokitzen laguntzeko; zazpi urtetik gorako ibilgailu bat txatar bihurtzeko aukera hautazko gisa txertatzeko; turismo-ibilgailu bat hautagarri izateko muga-prezioa igotzeko; sortutako eskariaren aurrean, gas-ibilgailu astunetarako gehieneko aurrekontua handitzeko; kudeaketarako malgutasuna bultzatzeko; eta, programaren kudeaketa-gastuak aintzat hartzeko.

Horrez gain, programa horrek enplegua sortzea eta jarduera ekonomikoa bultzatuko du, pandemiaren ostean, hainbat laguntza-lerroren eraginez, ekonomiaren susperraldia nabaritu den testuinguru batean. Horrez gain, nabarmentzekoa da erregai fosilen inportazioen murrizketatik eta enpresen lehiakortasunaren hobekuntzatik eratorritako onura. Energia- eta ingurumen-eraginkortasuna hobetzearen osagarri, beste ondorio sozial positibo batzuk nabarmen ditzakegu, desgaitasuna eta mugikortasun urritua duten pertsonen kolektiboarentzako laguntza berezia adibidez.

Esan behar da, 569/2020 EDren bidez, mugikortasun eraginkor eta jasangarria sustatzeko laguntza-programa baten deialdi berria justifikatzen duten arrazoi eta helburuak guztiz bat datozela Eusko Jaurlaritzaren energia-politikaren helburuekin, Euskadiko Energia Estrategia 2030 agirian (3E2030) zertuta dauden eran. Euskadiko Energia Estrategia 2030en xedea da, beharrezko bultzada publikoa emanez, energia-kontsumoaren eraginkortasuna areagotzen laguntzea, eta, horren bidez, energia-sistema lehiakor, jasangarri eta seguruago bat erdiestea, ingurumenaren gainerako inpaktua gutxitzean, kontsumo edo ekoizpenerako energia gutxiago behar izatean, eta kanpoko energia-baliabideen mendekotasuna murriztean. Horren guztiaren lehentasunezko helburua da salgaien garraioan eta pertsonen mugikortasunean energia-kontsumoa arrazionalizatzea eta petrolioaren mendekotasuna murriztea xedetzat duten ekintzak sustatzea, halakoen bidez transferentzia errazago bihurtuta garraio-modu eraginkorrak baliatzeko, energia berriztagarriak erabiltzeko, energiaren aldetik eraginkorrak diren teknologiak ezartzeko, eta karga elektrikorako eta erregai alternatiboen hornikuntzarako behar diren azpiegiturak erabilgarri izateko Euskal Autonomia Erkidegoa (aurrerantzean, «EAE»).

- 1.2. 569/2020 Errege Dekretu horren bitartez ebatzen da Moves II programaren laguntzak autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei zuzenean ematea banaketa-irizpideei jarraikiz, baita diruz laguntzekoak diren jarduerak finantzatzeko funtsen (100 milioi euro, guztira) banaketa ere, V. eranskinean ezarritakoari jarraikiz. Euskal Autonomia Erkidegoari 4.640.001 euroko kopurua emango zaio.



## Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

## Europa egiteko modu bat

Ondorioz, Mugikortasun eraginkor eta jasangarria sustatzeko laguntza-programa – Moves II Programa (aurrerantzean, «laguntza-programa») honetarako zuzkidura ekonomikoa 4.640.001 eurokoa da, Energiaren Euskal Erakundearen (aurrerantzean, «EEE») aurrekontuetan horretarako ezarri den kredituaren arabera. Behin zeharkako kostuak kenduta 569/2020 EDko 12. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, laguntzen azken onuradunentzako gehieneko zenbatekoa **4.524.001** euro izango da.

- 1.3. Laguntza programa honen barruan ematen diren dirulaguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira. Dirulaguntzen programaren deialdi honek badu aurrekontu-kreditu nahikoa EEEn aurrekontuetan, 2020ko ekitaldirako.
- 1.4. Laguntza-programa hau zein hura aplikatuz ematen diren dirulaguntzak bateragarriak dira barne-merkatuarekin, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 107. artikuluko 3. atalean xedaturik dagoenaren arabera, eta salbuesirik daude tratatu bereko 108. artikuluan Batzordeari jakinarazteko ezarrita dagoen betebeharretik.

Estatuaren dirulaguntza politiken oinarritzko lanabesa da Salbuespen edo Exentzio Erregelamendua, Europar Batzordeak barne-merkatuarekin bateragarriak diren ustezko dirulaguntzak identifikatzen dituen neurrian, aldez aurretik baimena eman beharrik gabe. Era horretan, ustezko dirulaguntza horien legezotasuna soil-soilik Erregelamenduaren eskakizun materialak betetzearen eta izapide edo tramite formal batzuk aurrera eramatearen menpe dago. Salbuespen edo Exentzio Erregelamendua, 2014ko uztailaren 1etik aurrera indarrean dagoenak, jakinarazpen salbuespena xedatzen du hamahiru dirulaguntza kategoriarako; gainera, horietako bakoitza baimendutako erregimen kopuru handi batean azpizatitu edo banatzen da. Salbuespen edo Exentzio Erregelamendua eskualde edo erkidego mailako helburua duten dirulaguntzak babesten ditu, enpresa txiki eta ertainei (ETE) laguntzak, ETEak finantzaketara iristeko laguntzak, ikerkuntza, garapen eta berrikuntzaren aldeko laguntzak.

Laguntza-programa honetan jasotako laguntzak, oro har, Batzordearen 2014ko ekainaren 26ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren eremuan sartzen dira (Tratatu 107. eta 108. artikulua aplikatuz barne-merkatuarekin bateragarriak diren zenbait kategoria aitortzekoa) (aurrerantzean, «651/2014 Erregelamendua») (EBAO 2014 L 187), eta bereziki honako artikulua honetan:

**36. artikulua** «*Enpresei ingurumen-babesaren arloko Europar Batasunaren arauz harago joatea edo, Europar Batasunaren araurik ez badago, ingurumen-babesaren maila igotzea ahalbidetzen dieten inbertsiorako laguntzak*».

Horri dagokionez eta 651/2014 Erregelamenduaren 11. artikulua a) letrak ezarritakoa betez, Estatuak laguntza-neurriari buruzko informazio laburtua bidali zion Europako Kontseiluari 2020ko uztailaren 2an. Moves II Programa – Mugikortasun Eraginkor eta Jasangarria Sustatzeko Pizgarri-programa arautzen duen ekainaren 16ko 569/2020 Errege Dekretuaren bitartez arautzen da adierazitako laguntza-neurria.

- 1.5. Laguntza-programa honen ondorioetarako, eta 651/2014 Erregelamenduko I. eranskineko 1. eta 2. artikuluetan arauturik dagoenaren arabera, enpresatzat jotzen da:

«*Ekonomia-jarduera bat gauzatzen duen entitate oro, haren forma juridikoa edozein izanik ere (ekonomia-jardueratzat jotzen da merkatu jakin batean ondasunak eta zerbitzuak eskaintzean datzan jarduera oro). Bereziki, enpresatzat hartuko dira artisautza-jarduera bat edo banakako edo familiako beste jarduera batzuk gauzatzen dituzten entitateak, bai eta pertsonen sozietateak eta ekonomia-jarduera bat erregularatasunez gauzatzen duten elkarteak*».

Mikroenpresa eta enpresa txiki eta ertainen (ETE) kategoriakoak izango dira 250 pertsonari baino gutxiagori lana eman eta urteko negozio-bolumena 50 milioi eurotik beherakoak dutenak, edo urteko balantze orokorrean 43 milioi euroak gaintzen ez dituztenak.



## Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

## Europa egiteko modu bat

ETE deritzon kategorian, enpresa txikia da 50 pertsonari baino gutxiagori lana eman eta urteko negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra 10 milioi eurotik beherakoa duena.

**1.6.** Laguntza-programa honen ondorioetarako, eta 651/2014 Erregelamenduko I. eranskineko 3. artikuluan arauturik dagoenaren arabera:

1. «*Enpresa autonomoa*» da 2. atalaren arabera enpresa elkartutzat eta 3. atalaren arabera enpresa lotutzat hartu ezin dena.

2. «*Enpresa elkartuak*» dira, 3. atalaren arabera enpresa lotutzat hartu ahal izateaz gain, enpresa arteko lotura hau dutenak: enpresa batek (enpresa partizipazioduna), berak bakarrik edo 3. atalaren araberrako enpresa lotu batekin edo gehiagorekin batera, beste enpresa baten (enpresa partizipatua) kapitalaren edo boto-eskubideen % 25 edo gehiago dauka.

*Enpresa batek, dena dela, enpresa autonomoaren –enpresa elkarturik gabekoaren– kalifikazioa hartu ahalko du, % 25eko gehieneko muga bete edo gainditu arren, hurrengo inbertitzaile hauek presente daudenean, halakoen –banaka edo batera– eta enpresaren artean 3. atalean deskribaturiko loturak ez egoteko baldintzarekin:*

a) Partizipaziorako sozietate publikoak, arrisku-kapitaleko sozietateak, arrisku-kapitalean inbertitzeko jarduera erregular bat egiten duten pertsona fisikoak edo pertsona fisikoaren taldeak (inbertitzaile probidentzial edo business angels direlakoak), funts propioak burtsako kotizaziorik gabeko enpresetan inbertituta, baldin eta inbertitzaile probidentzial horien inbertsioa, enpresa berean, 1.250.000 eurotik beherakoa bada.

b) Unibertsitateak eta irabazi-asmorik gabeko ikerkuntza-zentroak.

c) Inbertitzaile instituzionalak, eskualde-garapenerako funtsak barne.

d) Tokiko agintaritza autonomoak, 10 milioi eurotik beherako aurrekontuarekin eta 5.000 biztanletik beherakoak.

3. «*Enpresa lotuak*» dira elkarren artean lotura hauetako bat dutenak:

a) Enpresa batek beste enpresa bateko akziodun edo bazkideen boto-eskubide gehienak edukitzea.

b) Enpresa batek eskubidea dauka beste enpresa bateko administrazio-, zuzendaritza- edo kontrol-organo kide gehienak izendatzeko edo ezeztatzeko.

c) Enpresa batek eskubidea dauka beste baten gaineko eragin nagusia izateko, harekin eginiko kontratu baten bidez edo bigarren enpresaren estatutuarekin klausula baten bidez.

d) Beste baten akzioduna den edo beste batekin elkartuta dagoen enpresa batek besteko akziodun edo bazkideen boto-eskubide gehienak berak bakarrik kontrolatzea, beste enpresa horretako beste akziodun edo bazkide batzuekin eginiko akordio baten bidez.

*Eragin nagusirik ez dagoela iritziko zaio, 2. ataleko bigarren paragrafoan aipaturiko inbertitzaileek zuzeneko edo zeharkako inplikaziorik ez dutenean dena delako enpresaren kudeaketan, akziodunak diren aldetik dagozkien eskubideak gorabehera.*

*Lehen paragrafoan jasotako loturetako edozein beste enpresa baten edo batzuen bidez, edo 2. atalean aipaturiko inbertitzaileekin, duten enpresak ere lotutzat hartuko dira.*

*Halaber, enpresa lotutzat hartuko dira lotura horietako bat dutenak pertsona fisiko baten bidez edo elkar adituta diharduten pertsona fisiko batzuen talde baten bidez, baldin eta enpresa horiek beren jardura edo haren zati bat erreferentziako merkatu berean edo alboko merkatuetan gauzatzen badute.*

*«Alboko merkatutzat» joko da dena delako merkatuaren aurre-aurrean edo atze-atzean kokatuta dagoen produktu edo zerbitzu baten merkatua.*



#### Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

##### Europa egiteko modu bat

4. 2. ataleko bigarren paragrafoan aipaturiko kasuak izan ezik, enpresa bat ezingo da ETÉtzat hartu, baldin eta haren kapitalaren edo haren boto-eskubideen % 25 edo gehiago erakunde baten edo batzuen –taldean edo banaka– zuzeneko edo zeharkako kontrolpean badago.

5. Enpresek adierazpen bat egin ahalko dute enpresa autonomotzat, elkartzat edo lotutzat hartzeko kalifikazioari buruz eta 2. artikuluan aipaturiko mugen inguruko datuei buruz. Adierazpen hori egin ahalko dute, nahiz eta ezinezkoa izan, banatuta dagoen eragatik, kapitala norena den zehaztea; kasu horretan, enpresa horrek onustez adierazi ahalko du presuntzio legitimoa izan ahal duela haren kapitalaren % 25 edo gehiago ez dela beste enpresa batena eta ez dela haren jabea elkarri lotutako beste zenbait enpresarekin batera. Adierazpen horiek egiteak ez du salbuetsiko herrialdeetako edo Europar Batasuneko araudiek xedatutako kontrol eta egiaztapenetatik.

- 1.7. 651/2014 Erregelamenduaren barruan sartu, eta laguntzekoak diren proiektuek frogatu beharko dute laguntza-programa honen sostenguak sustapen-eragin bat duela (651/2014 Erregelamenduko 6.2 artikulua). Horren ondorioetarako, kasu hauetan iritziko zaio laguntzek sustapen-eragina dutela onuradunak, diruz laguntzekoa den proiektu edo jardueran lanean hasi baino lehen, laguntza-eskabide bat aurkeztu badu eta laguntza-eskabideak, gutxienez, 651/2014 Erregelamenduko 6.2 artikuluan aipatutako informazioa jasotzen badu.

Ondorioz, alde batera utzi gabe 1. jardueraren eraginpean egoteko moduan dauden ibilgailuak eskuratzeko adierazitakoa, eskatzaileak jarduera profesionalik ez duten edo jarduera ekonomikorik garatzen ez duten pertsona fisikoak direnean, ez dira onartuko laguntza-eskabidea egin aurretik hasiak diren proiektuen eskabideak, eta, horretarako, proiektuaren edo lanen hasieratzat hartuko da 651/2014 Erregelamenduko 2. artikuluko (23) definizioa.

- 1.8. 569/2020 EDren 19 artikuluan ezarrita dagoen bezala, Eskualde Garapenerako Europako Funtzak (FEDER funtsak) laguntzen du programa hau finantzatzen, 2014-2020 Espainiako Programa Operatibo Eskualdeanitzaren (POPE) barruan, programa horretan diruz lagundu daitezkeen jardueratzat jasota dauden ekintzen kasuan. Modu horretan, xede diren ekintzak FEDER funtsekin batera finantzatu daitezkeen heinean, aplikagarriak izango dira honako hauek: Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 Erregelamendua, xedapen arruntak eta xedapen orokorrak ezartzen dituen Eskualde Garapenerako Europako Funtzari, Europako Gizarte Funtzari, Kohesio Funtzari, Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtzari eta Itsasoaren eta Arrantzaren Europako Funtzari buruz, eta Kontseiluaren 1083/2006 Erregelamendua (EB) indargabetzen duena; Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1301/2013 Erregelamendua, Eskualde Garapenerako Europako Funtzari buruzkoa, 1080/2006 Erregelamendua (EB) indargabetzen duena; eta Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1299/2013 Erregelamendua, baita alor horretan horiek osatzen edo ordeztzen dituen beste edozein araudi ere.

569/2020 Errege Dekretuaren 7.2 artikulua ezartzen duenez, honako jarduerak hauek izango dute baterako finantziakzioa izateko aukera:

- a) 1. jarduera: garraio publiko kolektiboko ibilgailuak eskuratzeko soilik.
- b) 2. jarduera: karga azpiegiturarako inbertsio guztiak.
- c) 3. jarduera: bizikleta-maileguen sistemarako inbertsio guztiak.
- d) 4. jarduera: azpiegituran inbertitzea dakarten jarduerak soilik.

## 2. Onuradunak.

- 2.1. Zerga-egoitza Espainian izanez gero, eta laguntzekoa den jarduerak EAEn kokatuta baldin badago, hauek izango dira laguntza-programa honen deialdiaren xede diren dirulaguntzak eskuratu ahalko dituztenak, 4. oinarriko irizpideen arabera:



## Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

## Europa egiteko modu bat

1. eta 2. jarduerak:

- a) Jarduera ekonomikoak garatzen dituzten pertsona fisikoak, eta kasu horretan Enpresaburu, Profesional eta Atxikitzaileen Erroldan alta emanda egon beharko dute, eta egoitza fiskala EAEn eduki.
- b) Aurreko ataletik kanpo gelditutako EAEn egoitza fiskala duten adin nagusiko pertsona fisikoak, desgaitasuna dutenak izan ezik, azken horiek adingabeak izan daitezkeelarik.
- c) EAeko jabekideen erkidegoak, jabetza horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legeak araututa daudenak. Azaroaren 17ko 38/2003 Legean aurreikusitakoa bete beharko dute, eta bereziki haren 11.3 artikuluan ezarritakoa.
- d) Laguntza eskabidea aurkezteko unean, Espainian baliozkotasunez eraturik dauden pertsona juridikoak, eta beste entitate batzuk, nortasun juridikoa izan zein ez, haien identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) A, B, C, D, E, F, G, J, R edo W letrarekin hasten denean, EAEn kokatuta daudenak edo egoitza sozial eta fiskala EAEn dauzkatenak, betiere.

Egoitza soziala eta fiskala EAEn ez edukiz gero, honako hauek dirulaguntzak eskuratzeko moduan egongo dira: autonomia-erkidego honetan i) beren jarduera garatzen dutenak, (ii) egoitza bat daukatenak, eta (iii) lantaldearen zati bat daukatenak. Hori guztia bete beharko da bi urte lehenagotik, gutxienez, laguntza-deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (aurrerantzean, «EHA») argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Egoitza sozial eta fiskala EAEn ez edukiz gero, eta aurreko hiru baldintza horiek ez betez gero, dirulaguntzak eskuratzeko moduan egongo dira diruz laguntzekoa den inbertsio bat, 2. jardueran (4. oinarria) deskribatutakoaren arabera, gauzatzen denean, inbertsio horrek eraginik baldin badu, EAeko lurraldearen barruan, energia-kontsumoaren gainean edo petrolioaren mendekotasuna murriztean.

- e) EAeko toki-erakundeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 3. artikuluari jarraikiz; eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2.2 artikuluan jasotako edozein Administrazio Publikoren erakunde-sektore publikoa, EAEn kokatuak edo bertan lurralde-ordezkaritza dutenak.

3. eta 4. jarduerak:

1. eta 2. jardueretarako zerrendatutako subjektu guztiak izan daitezke laguntzen azken onuradunak, aurreko atalean b) eta c) letretan identifikatu direnak izan ezik (pertsona fisikoei eta jabekideen erkidegoei dagozkie, hurrenez hurren).

- 2.2. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko (aurrerantzean, «DLLO») 13. artikuluan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzeko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko (aurrerantzean, «1/1997 Legegintzako Dekretua») 50. artikuluan xedaturik dagoenaren arabera, onuradun-izaera bereganatu ahalko dute dirulaguntza emateko oinarria den egoeran dauden pertsona edo entitateek, edo programa arautzeko oinarri hauetan eta deialdian jasotako zirkunstantziak betetzen dituztenek.

Pertsonak edo entitateek onuradun izateko debekurik ez dutela justifikatzeko, DLLOko 13.7 artikuluan eta 1/1997 Legegintzako Dekretuko 50.6 artikuluan xedatutako bideak erabili ahalko dituzte.

- 2.3. Pertsona onuraduntzat jotzeko ezinbesteko baldintza izango da, dirulaguntza eman aurretik zein dirulaguntza emanez gero egoera edo baldintza horretan jarraitu ahal izateko, zergen eta gizarte segurantzaren inguruko betebeharrak edo ordainketak eguneratuak edukitzea, eta hala badagokio, dirulaguntzak itzuli behar izateagatik betebeharren ordainketak ere.



## Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

## Europa egiteko modu bat

**2.4.** Hauek ezingo dira onuradunak izan:

- a) DLLOko 13.2 eta 13.3 artikuluetan eta/edo 1/1997 Legegintzako Dekretuko 50.5 artikuluan ezarritako zirkunstantziaren bat betetzen duten eskatzaileak, eta dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galarazten dien zigor penal edo administratibo bat jaso dutenak, edo horretarako desgaitzen dituen legezko debekuren bat dutenak.
- b) Euskadiko Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunari buruzko abenduaren 28ko 14/2007 Legea betez, armak ekoiztea, merkaturatzea eta finantzatzea, osorik edo zati batean, helburu sozialtzat edo jardueratzat duten enpresak.
- c) **651/2014** Erregelamenduaren 1. artikuluan 4.a) eta 4.c) ataletan xedatutakoaren arabera:
  - Berreskuratzeko agindu baten zain dauden enpresak, aldez aurretik Batzordeak emandako erabakiaren ondoren, dirulaguntza barne-merkatuarekin legez kanpokotzat edo bateraezintzat jo delako edo emakidan esleitutako betebeharrak ez betetzeagatik.
  - Krisian dauden enpresak, **651/2014** Erregelamenduaren 2. artikuluan 18. atalaren arabera.
- d) Laguntza-programa honetako 4. oinarrian deskribaturiko 1. jarduerarako (energia alternatiboko ibilgailuak eskuratzea), irailaren 28ko 1175/1990 Legegintzako Errege dekretuaren bidez onartutako ekonomia-jardueren gaineko zergaren lehen atalean 615.1 edo 654.1 epigrafea duten kontzesionario edo saltokiak.

**3. Aurrekontu-zuzkidura eta eskabideak aurkezteko epea.**

Laguntza-programa honetarako esleitutako zuzkidura ekonomia **lau milioi, bostehun eta hogeitalau mila eta bat euro (4.524.001,00 €)** da, EEEn aurrekontuetan horretarako ezarri den kredituaren arabera.

Zuzkidura ekonomiko hori honela banatzen da 4. oinarrian deskribaturiko 1., 2., 3. eta 4. jardueren artean:

1. jarduera: 2.035.800,45 €, (% 45).
2. jarduera: 1.809.600,40 €, (% 40).
3. jarduera: 226.200,05 €, (% 5).
4. jarduera: 452.400,10 €, (% 10).

1. jardueraren barruan, gehienez 203.580,05 euro (1. jardueraren zuzkidura guztiaren % 10) PGL/autogasez edo gas naturalez mugiarazitako ibilgailu astunak eskuratzeko esleituko dira.

Laguntza-programa honetarako laguntza-eskabideak aurkezteko epea 2020ko urriaren 20an hasiko da, eta haren indarraldia amaitu arte luzatuko da, hau da, oinarri hauek EHAAn argitaratzen diren dataz geroztik urtebete igarotzen denean. Adierazitako epea bukatuta, ez da eskabide gehiagorik onartuko.

Deialdiaren indarraldia amaitu ondoko bi hilabeteetan, jarduera baterako partidetako bat agortu ez bada, eta besteren batek, aldiz, erreserba-zerrenda badu, aurrekontua jarduera tipologia guztien artean berresleitzeko aukera izango da, erreserba-egoeran dauden eskabideak aztertu eta balioesteko, eta beraz, jardueren arteko banaketarako hasiera batean ezarritako gehieneko zenbatekoak indarririk gabe geratuko dira, aldez aurretik ezar zitezkeen aurrekontu-erreserbak liberatuta. Jarduera tipologia guztien artean egin litezkeen berresleipenen ostean, autogas eta gas natural bidez propulsatutako ibilgailuen aurrekontu-muga ere liberatu ahalko da, baldin eta azken horietarako aurrekontua, gehienez ere, laguntza-programa honi esleitutako aurrekontu osoaren ehuneko hogeita bostak.

Aurrekontua agortu izanaren berri emango da, bai EHAAn, bai EEEn Interneteko helbidean: <https://www.eve.eus>

Epeak zenbatzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko (aurrerantzean, «**39/2015 Legea**») 30. artikuluan xedaturik dagoenari jarraituko zaio.



## Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

Europa egiteko modu bat

**4. Diruz laguntzekoak diren jarduerak eta dirulaguntzen zenbatekoa.**

Hurrengo paragrafoetan, diruz laguntzekoak diren jarduerak, laguntzen zenbatekoa eta bete beharreko baldintzak deskribatzen dira. Laguntza hauek 651/2014 Erregelamenduan ezarritako baldintza eta mugei loturik egongo dira.

4. oinarrian jasotzen diren ekintzak EAEn gauzatu badira soilik joko dira diruz laguntzeko modukotzat, betiere, adierazitako ekintzak eragina baldin badu energiaren kontsumoan edo petrolioarekiko mendetasunaren murrizketan, EAeko lurraldeari dagokionez. Hori guztia, dagokien inbertsioa laguntza-eskabidearen erregistro-daturen ondoren egin denean (alde batera utzi gabe 1. jardueraren eraginpean egoteko moduan dauden ibilgailuak eskuratzeko adierazitakoa, eskatzaileak jarduera profesionalik ez duten edo jarduera ekonomikorik garatzen ez duten pertsona fisikoak direnean; kasu horretan, ordainketak 2020ko ekainaren 18tik aurrera egin ahal izango dira), betiere, eta 12 hilabeteko gehieneko epe batean —laguntza emateko ebazpena jakinarazten den datatik zenbatzen hasita— gauzatzen denean, gauzatze hori epe berean justifikaturik.

**1. jarduera. Energia alternatiboko ibilgailuak eskuratzea.**

Diruz laguntzeko jarduera izango da 4. oinarri honetan deskribaturiko baldintzak betetzen dituzten ibilgailu berriak eskuratzea, bai zuzenean, bai zeharka, hots, leasing finantzarioko eragiketen bidez nahiz rentingeko errentamenduaren bidez (leasing operatiboa ere baderitza) finantzaturik. Ibilgailuok lehen aldiz EAEn matrikulatuak izan beharko dute, eta haien faktura eta matrikulatze-datak geroagokoa izan behar du, programa honen dena delako deialdirako eskabidearen erregistro-data baino. Ibilgailuaren kostu osoaren ordainketa, konturako edo bestelako zenbatekoak abonatzea barne, halakorik baldin badago, eskabidearen erregistro-data baino geroago egin behar da (alde batera utzi gabe 1. jardueraren eraginpean egoteko moduan dauden ibilgailuak eskuratzeko adierazitakoa, eskatzaileak jarduera profesionalik ez duten edo jarduera ekonomikorik garatzen ez duten pertsona fisikoak direnean). Ibilgailuak matrikulatuta egon beharko du laguntzaren onuradunaren izenean, renting kasuetan izan ezik, non renting enpresaren izenean matrikulatuta egongo den.

Jarduera profesionalik ez duten edo inolako jarduera ekonomikorik garatzen ez duten pertsona fisikoek 1. jardueraren eraginpeko ibilgailu bat eskuratzeko badute 569/2020 ED indarrean hasi (2020ko ekainaren 18.a) ondoren, diruz laguntzeko moduko jardueratzat joko da eskuratzeko hori, betiere honako laguntza-programa honek eskatutako betekizunak betetzen baditu.

M1 eta N1 kategorietako ibilgailu elektrikoak eta erregai-piladunak eskuratzeko ere diruz laguntzeko izango da, baldin eta gehienez ere bederatzita hilabeteko antzintasuna badute lehen matrikulaziotik laguntza-eskabidearen erregistro-datara bitarte (alde batera utzi gabe 1. jardueraren eraginpean egoteko moduan dauden ibilgailuak eskuratzeko adierazitakoa, eskatzaileak jarduera profesionalik ez duten edo jarduera ekonomikorik garatzen ez duten pertsona fisikoak direnean, baldin eta ibilgailua deialdi hau argitaratu aurretik eskuratu bada, antzintasuna zehazteko lehen matrikulaziotik fakturaren datara —eskuratzeko formalizatu den data— bitarteko aldia **aintzat hartuta**), eta titularra kontzesionarioa, saltokia edo laguntzaren azken hartzaileari ibilgailua (hemendik aurrera, «demostrazio-ibilgailuak») saltzen dion fabrikatzailea/inportatzailea bada. Kasu horretan nahitaezkoa da kontzesionarioak edo saltokiak ibilgailua fabrikatzaile edo inportatzailearen eskutik ibilgailu berri gisa eskuratu izana, eta lehen matrikulazioan inolako dirulaguntzarik jaso ez izana.

Laguntza programa honen arabera, laguntzak jaso ditzaketen ibilgailuek kategoria hauetako batekoak izan beharko dute:

- a) **M1 turismo-ibilgailuak**: pertsonak garraiatzeko diseinatu eta fabrikatutako ibilgailu motordunak, gutxienez, lau gurgil eta, gehienez, gidariarenaz eserlekuaz gainera, zortzi plaza dituztenak.
- b) **M2 autobus edo autokarrak**: nagusiki pertsonak eta haien bagajeak garraiatzeko diseinatu eta fabrikatutako ibilgailu motordunak, gidariarenaz gainera, zortzi eserleku-plaza baino gehiago

2020ko irailaren 16a, asteazkena



## Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

## Europa egiteko modu bat

dituztenak eta, kargan teknikoki onargarria den gehieneko masaren aldetik (TOGM), 5 tonak gainditzen ez dituztenak.

- c) **M3 autobus edo autokarrak:** nagusiki pertsonak eta haien bagajeak garraiatzeko diseinatu eta fabrikatutako ibilgailu motordunak, gidariarenaz gainera, zortzi eserleku-plaza baino gehiago dituztenak eta, kargan teknikoki onargarria den gehieneko masaren aldetik (TOGM), 5 tonak gainditzen dituztenak.
- d) **N1 furgoneta edo kamioi arinak:** nagusiki salgaiak garraiatzeko diseinatu eta fabrikatutako ibilgailu motordunak, kargan teknikoki onargarria den gehieneko masaren aldetik (TOGM), 3,5 tonak gainditzen ez dituztenak.
- e) **N2 furgoneta edo kamioi arinak:** nagusiki salgaiak garraiatzeko diseinatu eta fabrikatutako ibilgailu motordunak, kargan teknikoki onargarria den gehieneko masaren aldetik (TOGM), 3,5 tonak gainditu, eta 12 tonaren azpitik daudenak.
- f) **N3 furgoi eta kamioiak:** nagusiki salgaiak garraiatzeko diseinatu eta fabrikatutako ibilgailu motordunak, kargan teknikoki onargarria den gehieneko masaren aldetik (TOGM), 12 tonak gainditzen dituztenak.
- g) **L6e kuartziziklo arinak:** hutsean 350 kilogramoko edo gutxiagoko masa duten kuartziziklo arinak, baterien masa kontuan hartu gabe, fabrikazioz gehieneko abiadura 45 km/h-koa edo gutxiagokoa dutenak, eta gehieneko potentzia, 4 kW-koa edo gutxiagokoa.
- h) **L7e kuartziziklo astunak:** hutsean 400 kilogramoko edo gutxiagoko masa duten kuartzizikloak (550 kg-koa, salgaiak garraiatzeko ibilgailuetan), baterien masa kontuan hartu gabe, eta gehieneko potentzia 15 kW-ekoa edo gutxiagokoa dutenak.
- i) **L3e, L4e, L5e motozikletak:** bi gurpileko ibilgailuak, edo hiru gurpil simetriko edo asimetriko dituztenak ibilgailuaren luzetarako erdiko ardatzarekiko, diseinuz gehieneko abiadura 45 Km/h-tik gorakoa dutenak.

Pizgarriak jaso dezaketen ibilgailuek IDAeren Ibilgailu Basean (<http://coches.idae.es/base-datos/vehiculos-elegibles-programa-Moves>) jasota egon behar dute, eta mota hauetako batekoak izan:

- Erregai fosil alternatiboak erabil ditzaketen barne-errekuntzako motorrez mugiarazitako N2 eta N3 ibilgailuak, honela homologatutakoak: PGL/autogasa, gas natural konprimatua (GNK), gas natural likidotua (GNL), edo gasolina/gasezko bifuela. Laguntza deialdi honetatik kanpo geratzen dira autogasez edo gas naturalez (konprimatua, likidotua) mugiarazitako M1, N1, M2 eta M3 ibilgailuak.
- Ibilgailu elektriko hutsak (BEV), energia, zati batean edo osoki, haien baterietatik hartzen duten motor elektriko batzuen bidez erabat eta soilik mugiarazitakoak, bateria horiek berriz kargatzeko ibilgailutik kanpoko iturri bat erabilita, hala nola sare elektrikoak.
- Autonomia handituko ibilgailu elektrikoak (REEV), energia, zati batean edo osoki, haien baterietatik hartzen duten motor elektriko batzuen bidez erabat eta soilik mugiarazitakoak, bateria horiek berriz kargatzeko ibilgailutik kanpoko iturri bat erabilita, gasolinazko edo gasoliozko barne-errekuntzako motorra ere badaukatela, bateria horiek berriz kargatzeko.
- Ibilgailu hibrido konektagarriak (PHEV), gasolina edo gasoliozko barne-errekuntzako motor batzuen bidez eta energia, zati batean edo osoki, haien baterietatik hartzen duten motor elektriko batzuen bidez erabat edo partzialki mugiarazitakoak, bateria horiek berriz kargatzeko ibilgailutik kanpoko iturri bat erabilita, hala nola sare elektrikoak. Motor elektrikoak kanpoko energia-iturri batetik kargatutako bateria batzuekin elikatu beharko da.
- Erregai-zelulazko Ibilgailu elektrikoak (FCV): barruan daraman hidrogeno-erregaizko pila batetik datorren energia soilik erabiltzen duen ibilgailu elektrikoak.
- Erregai-zelulazko Ibilgailu elektriko hibridoak (FCHV): bateria elektriko kargagarriak ere badauzkan erregai-zelulazko ibilgailu elektrikoak.

2020ko irailaren 16a, asteazkena



## Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

## Europa egiteko modu bat

- L3e, L4e, L5e, L6e eta L7e kategorietako ibilgailuak, motor elektriko soilik mugiarazitakoak eta ibilgailu elektrikoetatik homologatutakoak. Programa honetatik laguntzak jaso ditzaketen motozikleta berriek (L3e, L4e eta L5e kategoriak) litiozko bateriak, 3 kW-ko edo gehiagoko motor-potentzia duen motor elektriko bat eta, gutxienez, 70 km-ko autonomia bat izan behar dituzte.

PGL/autogas, GNK, GNL edo gasolina-gas bifuel gisa homologatutako N2 eta N3 ibilgailuak eskuratzeko ematen diren laguntzen kasuan, fabrikatik datozenak hartuko dira ibilgailu berritzat, edota fabrikatzaileak bere sare baimendunaren bitartez eraldatu eta bermatutako ibilgailuak, baldin eta Espainian lehen aldiz matrikulatu badira laguntzaren azken hartzailearen izenean. IDAE institutuak egindako «Erregai-kontsumoa eta CO<sub>2</sub> emisioak auto berrietan» datu-basean erregistratu beharko dira ibilgailuak.

Ibilgailuak **rentingeko** finantzaketa-eragiketen bidez eskuratzeko direnean, laguntza jasotzeko baldintza izango da dagokion errentamendu-kontratuak bi urteko gutxienezko iraupen bat ezar dezan, formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita, eta egun hori laguntza-eskabidearen erregistro-dataren ondokoa izatea. Gainera, honako betekizun hauek bete beharko dira:

- Laguntzaren azken hartzaileak (errentariak) edo, hala badagokio, haren ordezkariak kudeatuko du laguntza-eskaeraren izapidetzea.
- Errentamendu-kontratuak argi eta garbi ezarri beharko du errentaria dela ematen zaion laguntzaren azken hartzailea, eta argi eta garbi adierazi beharko du, halaber, renting enpresak data horretan haren zenbatekoaren ordainketa jaso eta berehala, laguntzaren zenbateko osoa ezarriko duela errentariak ordaintzeke dauzkan ordainketa-kuotak edo errentamenduaren errenta murrizteko.
- Kontratuan jaso beharko da, ordaintzeke dauden kuoten baturaren zenbatekoa laguntzaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, azken hartzaileari ordaintzeke dagoen laguntza-soberakina ordaindu beharko zaiola, renting konpainiaren eskutik, errentamendu-kontratu amaitzean. Hortaz, errentariak, laguntzaren azken hartzailea izaki, Oinarrietan aurreikusitako betekizun eta bateraezintasunak bete beharko ditu.
- Rentingeko eragiketa-kasu guztietan, laguntza tramitatzen duena edozein izanik ere, laguntzaren azken hartzaileak dokumentu bat sinatuko du, kobratzeko eskubidea eragiketa formalizatzen duen renting konpainiari lagatzeko.

Kasu horietan, dirulaguntza kalkulatu da ibilgailu berriaren kostu teorikoaren oinarriaren gainean, renting kontratuko kuoten zenbateko hautagarriak batuz. Kuota bakoitzaren zenbateko hautagarria, ibilgailu berria eskuratzeari egoztekoa den kuotaren zenbatekoa izango da, gainerako zenbateko gutxiak kenduta, hala nola mantentzearen zenbatekoa, zergak eta aseguruaren zenbatekoa. Eskaintzan zein renting kontratuan, kuotaren zenbatekoa xehatu egingo da, ibilgailu berria eskuratzeari egoztekoa den zenbatekoa zein den argi eta garbi azaltzeko moduan.

Azken hartzaileko, 30 ibilgailuko muga ezartzen da laguntzetan, jarduera profesionalik ez duten pertsona fisikoentzat izan ezik (2. Oinarriko 1. jarduerako a) ordinaletako definizioaren arabera), haiek ibilgailu bateko muga izango baitute azken hartzaileko.

Gainera, kontzesionarioak edo saltokiak gehienez lau demostrazio-ibilgailu eduki ahalko dituela ezartzen da, bederatzi hilabeterainoko antzinasuna duten M1 eta N1 kategorietako ibilgailu elektrikoak eta erregai-piladunak eskuratu behar diren kasurako.

4. oinarri honetan ezarritakoaren arabera bidezkoa den dirulaguntzaz gain, fabrikatzaileak, inportatzaileak edo saltokiak gutxienez 1.000 euroko deskontu gehigarri bat egingo du, M1 eta N1 kategorietako ibilgailuak eskuratzeko diren guztietan. Deskontu hori fakturan jasoko da, **BEZa edo IGICa ezarri aurretik**.

M1 kategoriako ibilgailuak eskuratzeari dagokionez, azken hartzaileak desgaitasuna duten mugikortasun urriko pertsona fisikoak direnean, ibilgailu egokitua edo haiek gidatzeko berariaz egokitutakoa daukatenak, baldin eta egokitapena eskuraturiko ibilgailuaren fitxa teknikoan jasota badago, laguntzen zenbatekoa 750 € gehituko da. Igoera hori ezarriko da, halaber, desgaitasuna duten mugikortasun urriko



## Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

## Europa egiteko modu bat

profesional autonomoek N1 kategoriako ibilgailu egokitu bat (edo gidatzeko egokitu beharreko bat) eskuratu behar dutenean.

Gainera, M1 eta N1 kategorietako ibilgailu berriak eskuratzen direnean, ibilgailua eskuratzeko laguntzaren zenbatekoa igotzeko aukera izango da oinarri hauetan jasotako zenbatekoan, baldin eta azken hartzaileak egiaztatzen badu Espainian matrikulatutako ibilgailu bati zirkulaziorako behin betiko baja eman diola. Kasu horretan, laguntzaren azken erabiltzaileak —diruz laguntzekoa den ibilgailuaren eskuratzailak edo ibilgailuaren errentariak, renting edo leasing operatiboko eragiketetan—, txatar bihurtu beharreko ibilgailuaren zirkulaziorako behin betiko baja egiaztatu ahaliko du Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan, honako irizpide hauek betez:

- Txatar bihurtu beharreko ibilgailuak M1 edo N1 kategoriakoa izan behar du.
- Espainian matrikulatuta egon behar du, 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen.
- Txatar bihurtu beharreko ibilgailuak indarrean eduki behar zuen Ibilgailuen Azterketa Teknikoa 569/2020 Errege Dekretua indarrean hasi zenean, edo, hala badagokio, COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko eman zen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua argitaratu zen datan.
- Laguntza-eskatzaileak, gainera, laguntza eskatzen den dataren aurreko hamabi hilabeteetan, gutxienez, izan behar du txatar bihurtzeko den ibilgailuaren titulartasuna, Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan. 2020ko ekainaren 18aren aurretik 1. jardueraren eraginpean egoteko moduan dauden ibilgailuak eskuratzen direnean, eskatzaileak jarduera profesionalik ez duten edo jarduera ekonomikorik garatzen ez duten pertsona fisikoak direnean, eskatzaileak txatar bihurtutako ibilgailuaren titulartasuna eduki behar du, gutxienez, laguntza-eskabidearen dataren aurreko hamabi hilabete lehenagotik.
- Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren azken ordainagiria aurkeztu behar du, behar bezala ordainduta, 2019az geroztik gutxienez.

Txatar bihurtzeagatiko laguntza-igoerari ere meta dakiok mugikortasun urritua edo desgaitasuna duten pertsonen kolektiboentzat jasotako igoerari.

Laguntzaren eskatzailea **persona fisiko bat (jarduera ekonomikoa garatu edo ez), jabekideen erkidego bat edo sektore publikoari lotutako erakunde publiko bat bada** (2. oinarrian 1. jarduerako a), b), c) eta e) ordinaletarako ezarritako definizioa betez), banakako laguntza-zenbateko hauek ezartzen dira, ordainduko direnak baldin eta taula honetan ezarritako ibilgailuaren salmenta-prezioaren muga gainditzen ez bada, hala gertatuz gero laguntza ordainduko ez delarik, eta laguntza eskatzen den unean indarrean dagoen bezeroarentzako salmenta-prezioa aintzat hartuta, BEZa ezarri aurrekoa.

Motorizazioa	Kategoria	TOGM (kg)	Ibilgailuaren salmentako muga-prezioa (€)	Laguntza (€) Txatar bihurtu gabe	Laguntza (€) Txatar bihurtuta.
PGL, autogasa edo bifuelua	N2	—	—	3.600	-
	N3	18.000 baino gutxiago		5.400	-
		18.000 edo gehiago		13.500	-
GNK, GNL edo bifuelua	N2	—		4.500	-
	N3	18.000 baino gutxiago		6.300	-
		18.000 edo gehiago		13.500	-

2020ko irailaren 16a, asteazkena



## Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

## Europa egiteko modu bat

Motorizazioa	Kategoria	Autonomia (km)	Ibilgailuaren salmentako muga-prezioa (€)	Laguntza (€) Txatar bihurtu gabe	Laguntza (€) Txatar bihurtuta
Erregai-pila (FCV, FCHV)	M1	—	—	4.000	5.000
PHEV, REEV, BEV	M1	30 edo gehiago eta 90 baino gutxiago	45.000 € (53.000 € 8 plazako BEV ibilgailuetarako, baldin eta azken onuraduna edo hartzailea administrazio publiko bat edo onura publikoko entitate edo erakunde errekonozitu bat bada, nagusiki, gizarte-zerbitzuak edo irabazi-asmorik gabekoak ematen dituen).	1.900	2.600
		90 edo gehiago		4.000	5.500
PHEV, REEV, BEV, erregai-pila (FCV, FCHV)	N1	30 edo gehiago	—	4.400	6.000
	M2, N2	—		8.000	-
	M3, N3	—		15.000	-
BEV	L6e	—	—	600	-
	L7e	—		800	-
	P ≥ 3kW-ko L3e, L4e, L5e	70 edo gehiago		10.000	750

Laguntzaren eskatzailea **pertsona juridiko** bat bada (2. oinarrian 1. jarduerako d) ordinalean ezarritako definizioaren arabera), eta haren tamainaren arabera, 651/2014 Erregelamenduan zehaztutakoari jarraikiz, banakako laguntza-zenbateko hauek ezartzen dira, ordainduko direnak baldin eta taula honetan ezarritako ibilgailuaren salmenta-prezioaren muga gainditzen ez bada, hala gertatuz gero laguntza ordainduko ez delarik, eta laguntza eskatzen den unean indarrean dagoen bezeroarentzako salmenta-prezioa aintzat hartuta, BEZa ezartzearen aurrekoa. Nolanahi ere, laguntzaren zenbatekoak ezin izango ditu gainditu aplikatzea den erkidego-erregelamenduan definitutako atalase-mailak.

Motorizazioa	Kategoria	TOGM (kg)	Ibilgailuaren salmentako muga-prezioa (€)	Laguntza (€) Txatar bihurtu gabe		Laguntza (€) Txatar bihurtuta	
				ETE	Enpresa handia	ETE	Enpresa handia
PGL, autogasa edo bifuelua	N2	—	—	2.250	1.800	—	—
	N3	18.000 baino gutxiago		5.400		—	
		18.000 edo gehiago		13.500		—	
GNK, GNL edo bifuelua	N2	—	—	2.250	1.800	—	—
	N3	18.000 baino gutxiago		5.400		—	
		18.000 edo gehiago		13.500		—	

2020ko irailaren 16a, asteazkena



## Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

## Europa egiteko modu bat

Motorizazioa	Kategoria	Autonomia (km)	Ibilgailuaren salmentako mugaprezioa (€)	Laguntza (€) Txatar bihurtu gabe		Laguntza (€) Txatar bihurtuta	
				ETE	Enpresa handia	ETE	Enpresa handia
Erregai-pila (FCV, FCHV)	M1	—	—	4.000		5.500	
PHEV, REEV, BEV	M1	30 edo gehiago eta 90 baino gutxiago	45.000 € (53.000 € 8 plazako BEV ibilgailuetarako, baldin eta azken onuraduna edo hartzailea administrazio publiko bat edo onura publikoko entitate edo erakunde publiko bat bada, nagusiki, gizarte-zerbitzuak edo onura publikoko irabazi-asmorik gabekoak ematen dituenak)	1.670	1.600	2.300	2.200
		90 edo gehiago		2.920	2.190	4.000	3.000
PHEV, REEV, BEV, erregai-pila (FCV, FCHV)	N1	30 edo gehiago	—	3.630	2.900	5.000	4.000
	M2, N2	—		6.000	5.000	—	—
	M3, N3	—		15.000		—	
BEV	L6e	—	—	600		—	
	L7e			800		—	
	P ≥ 3kW-ko L3e, L4e, L5e	70 edo gehiago		10.000	750	750	

Funtzionamendu-modu elektriko hutseko autonomiaren definizioa da ibilgailuak bere baterietan metaturiko energia soilik erabiliz egin dezakeen distantzia, eta fabrikatzaileak ibilgailuaren dokumentazio tekniko eta komertzialean adierazten du hura zein den.

## 2. Jarduera. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura ezartzea.

Diruz laguntzeko jarduerak izango dira ibilgailu elektrikoaren bateriak kargatzeko sistemak, zuzenean eskuratutakoak, eta jabeakideen erkidegoetako ibilgailu elektrikoak kargatzeko aurreinstalazio elektrikoak.

Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura publikoa zein pribatua izan ahalko da.

Sistema horiek ezingo dira ezarri programa honen dena delako deialdirako eskabidearen erregistro-data baino lehen; hartara, sistema horiek ezartzeko inbertsioak eskabidearen erregistro-daten ondoren eginga izan beharko du. 651/2014 Erregelamenduan xedatzen den pizgarriaren ondorioetarako, pertsona juridiko publikoek dagokienez, dena delako eskuratzearen data zehazteko, erreferentziako datatzat hartuko da lizitazio baldintza-agiriaren argitaratze-data eta, gainerako pertsona fisiko edo juridiko pribatuei dagokienez, kasuan kasuko ondasunen eta/edo zerbitzuen hornidura-kontratuen formalizazio-data.



### Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

#### Europa egiteko modu bat

Honako hauek joko dira diruz laguntzeko kostuztat: proiektua; obra zibila; kableatzeko ingeniari-tza eta obra-zuzendaritza; eta kableatuaren instalazioa, zirkuitua deribatzen den azken kaxa elektrikotik ibilgailua kargatzeko konektatzen den konexio-punturaino, azken hori ere diruz laguntzekoa. Diruz laguntzekoak dira, era berean, kargagunean integraturiko ordainketa-sistema, kargaguneen seinaleztapena, eta kudeaketa, kontrol eta segurtasuneko sistema.

Ez da diruz laguntzeko kostuztat joko kontagailu adimendunak instalatzea, halakoak argindar-konpainiek eman beharko baitizkiete kontsumitzaileei (azken erabiltzaileak edo kargaren kudeatzaileak), alokairuan eskuarki.

Parking edo aparkaleku kolektiboetan, lehendik badauden eta jabetza horizontaleko araubidea duten eraikinetan, diruz laguntzeko jarduera izango da ibilgailu elektrikoa kargatzeko aurreinstalazio elektrikoa, eremu komunitarioetan zehar doan eroanbide batekin (hodi, kanal, erretilu, eta abarren bidez), aparkaleku-plazetan dauden kargaguneetaraino deribazioak egiteko moduan, Behe-tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoaren ITC-BT-52 jarraibideko 3.2 atalean deskribaturik dagoen bezala.

Karga-sistemak honela sailkatuko dira, beren potentziaren arabera:

- Karga-sistema lotua: 7 kW-tik beherako potentzia.
- Karga konbentzionaleko sistema: 7 kW-ko edo hortik gorako eta 15 kW-tik beherako potentzia.
- Karga erdiazkarreko sistema: 15 kW-ko edo hortik gorako eta 40 kW-tik beherako potentzia.
- Karga azkarreko sistema: 40 kW-ko edo hortik gorako eta 100 kW-tik beherako potentzia.
- Karga ultra azkarreko sistema: 100 kW-ko edo hortik gorako potentzia.

Karga-sistema berean potentzia bat baino gehiago badaude, instalazioaren kargaguneen gehieneko potentziaren arabera sailkatuko da.

Kargatze-azpiegiturak erabilera hauek izan ahalko ditu:

Erabilera pribatua bizitegi-sektorean, familia bakarreko etxebizitzak barne.

- Erabilera publikoa bizitegi besterako sektorean (aparkaleku publikoak, hotelak, merkataritza-guneak, unibertsitateak, ospitaleak, industrialdeak, kiroldegia, etab.).
- Erabilera pribatua enpresa pribatu eta publikoen aparkalekuetan, norberaren flotari zerbitzu emateko.
- Erabilera publikoa enpresa pribatu eta publikoen aparkalekuetan, beren langile eta bezeroei zerbitzu emateko.
- Erabilera publikoa bide publikoan, hiri-barruko eta hiriarteko bide-ardatzetan eta enpresetan.
- Erabilera publikoa bide-sarean, interes bereziko izanik zerbitzugune eta gasolindegietako kargatze-azpiegitura.
- Autobusen aukera-karga pantografo bidez.

Kargatzeko sistemek baldintza hauek bete beharko dituzte –salbu eta g) kasuan, horrek aplikagarria zaion araudia bete beharko baitu–:

- ✓ Behe-tentsioan konektaturiko instalazioetarako, Behe-tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoak betez, zehazki, ITC-BT-52. Kokapenaren arabera IP eta IK babes-maila egokia, BTEEri jarraituz.
- ✓ Elikapena: monofasikoa edo trifasikoa, 230-400 VAC. Gutxienez, 3. moduarekiko bateragarritasun osoa IEC 61.851-1 arauaren arabera; eta, gutxienez, 2. motako konektorea izan behar du, IEC 62.196-2 arauaren arabera, energia-neurketa integratutakoa.
- ✓ Segurtasun-araudiaren arabera babes elektrikoak.



### Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

#### Europa egiteko modu bat

- ✓ EE deklarazioa.
- ✓ Karga publikorako, gainera, konektagarritasuneko baldintza hauek bete beharko dira:
  - Gutxienez 2 motako konektorea, IEC 62. 196-2 arauaren arabera, gutxienez 3 moduarekin bateragarritasun osoa (IEC 61.851-1), energia-neurria integratuta.
  - Ethernetera konektatzeko interfazea eta datu-biltegitratze lokalerako memoria, operazioko bi hilabete biltegitratzeko, gutxienez.
  - OCPP v1.5 protokoloarekiko edo goragoko bertsio batekiko bateragarritasuna, web-zerbitzuak erabiliz (SOA); eta gorako bertsioetara eguneratu ahal izatea.
  - Erabiltzailearen identifikazio lokala, RFID ukipen-txartelaren bidez, ISO 14443A arauaren arabera, edo identifikazio-sistema baliokidea.
  - Potentziaren eta transferitutako energiaren neurketa.
  - Komunikazio mugikorrekiko 3G/GPRS modulua edo goragokoa, edo beste edozein komunikazio-kanal baliokide.

Proiektuaren memoria teknikoan, horretarako egindako planoan erreferentziatutako karga-sistemen kokapenetan helbidea, zenbakia eta longitudeko eta latitudeko GNSS koordenatuak adierazi beharko dira (GPS, Galileo edo bestelako konstelazioak, uztailaren 27ko 1071/2007 Errege Dekretuarekin bateragarriak). Eraikinen eta aparkalekuaren kasuan, ibilgailuen sarbide nagusiari dagozkion koordenatuak adieraziko dira.

Laguntzaren zenbatekoa diruz laguntzekoa den kostuaren % 30 izango da pertsona juridikoentzat (2. oinarriko 2. jarduerako d) ordinalean ezarritako definizioaren arabera) eta % 40 pertsona fisiko, jabeakideen erkidego, eta merkataritza-jarduerarik gabeko erakunde publikoentzat (2. oinarriko 2. jarduerako a), b), c) eta e) ordinaletan ezarritako definizioen arabera).

Azken hartzaileko, 100.000 €-ko gehieneko muga ezartzen da laguntzetan.

### **3. jarduera. Bizikleta elektrikoak mailegatzeko sistemak ezartzea.**

Honako hauek joko dira diruz laguntzeko jardueratzat: proiektua; obra zibila; sistemaren ainguraketak eta oinarriak; bizikleta elektrikoak eskuratzeko kostua; eta mailegu-sistema kudeatzeko beharrezkoak diren softwareko gastuak.

Obra zibila ezingo da egin eta sistemaren elementuak ezingo dira eskuratu laguntza programa honen dena delako deialdirako eskabidearen erregistro-data baino lehen.

Horren ondorioetarako, pertsona juridiko publikoei dagokienez, dena delako eskuratzearen data zehazteko, erreferentziako datatzat hartuko da lizitazioko baldintza-agirien argitaratze-data eta, gainerako pertsona fisiko edo juridiko pribatuei dagokienez, kasuan kasuko obra zibila gauzatzeko kontratuen eta ondasunen eta/edo zerbitzuen hornidura-kontratuen formalizazio-data.

Sistemak izan ahalko dira bai publikoak, bai enpresa edo industrialde jakin batzuen eremura mugatuak.

Laguntzaren zenbatekoa diruz laguntzekoa den kostuaren % 30 izango da.

Azken hartzaileko, 100.000 €-ko gehieneko muga ezartzen da laguntzetan.



Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

Europa egiteko modu bat

#### 4. jarduera. Lanerako mugikortasun jasangarriko neurriak ezartzea.

Laguntzaren xedea izango da mugikortasun jasangarriko jarduerak ezartzea lantoki edo jarduerazentroetan, langile, bezero edo gainerako erabiltzaile guztien mugikortasunean eragiteko entitate jakin baten jarduerazentro batean sartu behar dutenean, parte-hartze handiago bat lortzeko modu eraginkorrenak baliatuz.

Bi motatakoa izan daiteke:

- a. jarduera honetarako, laguntza-programa honen 2. oinarriko a) eta d) ordinaletan adierazitako onuradunek gauzaturako neurriak. Lantokira Garraiatzeko Plan baten barruan bildu beharko dira diruz laguntzekoak diren jarduerak, Ekonomia Jasangarriari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 103. artikuluko definizioaren arabera, eta honako tipologia hauetako batean bildu beharko dira:
  - Lantokira oinez edo bizikletaz iristea errazteko jarduerak (inbertsioak bizikleta-aparkalekuan, aldagelen horniduran, etab.).
  - Lantoki edo jarduerazentroetarako garraio kolektiboko eta transbordadore-autobusetako linea espezifikoak jartzea.
  - Garraio publiko edo kolektiboaren erabilera erraztu eta sustatzeko jarduerak.
  - Ibilgailu partekatuen sistema eta plataformak.
- b. 2. oinarriko e) ordinalean 4. jarduera honetarako adierazitako onuradunek gauzaturako neurriak. Diruz laguntzekoak diren neurriak hiriguneetan ezarri beharko dira, mugikortasuna COVID-19aren ondoko alditik eratorritako eskakizun berrietara egokitzeko.
  - Oinez, bizikletaz, motoz edo pertsona bakarreko bestelako lekualdatze-baliabideak erabiliz banakako joan-etorriak sustatzeko neurriak, mailegu-sistemak ezarriz edo erabilera horietarako erreiak ezarriz edo egokituz, trafikoa arinduz, espazio partekatuak ezarriz edo espaloi eta espazio publikoak zabalduz.
  - Garraio publikoa indartzeko neurriak, garraio modu horrek erabiltzaileen konfiantza irabaz dezan eta haren erabilera sustatzeko, COVIDaren ondoko aldiaren ezarritako betekizunak betez (integrazio multimodala, errei esklusiboak, tarifazio malgua eta erraza, informazioa denbora errealean emateko digitalizazioa, etab.).
  - Azken milia jasangarriaren banaketa bermatuko duten neurriak ezartzea, hiriaren egokitzapen azkarren bitartez.

Planteatutako jarduerak betetzeari lotutako kostua hartuko da diruz laguntzeko kostutzat. Laguntza-eskabidearen xede diren neurriak bete beharko dira, betiere, dagokion deialdian eskabidea erregistratzen den datatik aurrera.

Lantokira Garraiatzeko Plana, eta, hala badagokio, Hiri Mugikortasun Jasangarriko Plana egiteko edo aldatzeko kostua diruz laguntzeko izango da, baldin eta plan hori laguntza eskatu ondoren egiten bada, eta, betiere, plana egitearekin batera, haren jardueretako bat abiarazten bada, energia aurrezteko moduan. Lantokira Garraiatzeko Plana egingo da IDAEren «Lantokira Garraiatzeko Planak egin eta ezartzeko gida praktikoaren» metodologiari jarraituz, [www.idae.es](http://www.idae.es) webgunean eskuragarri dagoena.

Laguntzaren zenbatekoa diruz laguntzeko den kostuaren % 40 izango da laguntzaren azken hartzaileentzat; merkataritza-jarduerarik gabeko hartzaileentzat, aldiz, laguntza % 50 izango da.

Laguntzetarako 60.000 euroko gehieneko muga ezartzen da azken hartzaile bakoitzeko.



Eskualde Garapenerako Europako Funtsa (EGEF)

Europa egiteko modu bat

## 5. Diruz laguntzeko kostua.

569/2020 EDn ezarrita dagoen bezala, laguntzaren xede diren jardueren kostuen artean, diruz laguntzekoak izango dira 651/2014 Erregelamenduan horrelakotzat jotakoak.

### 1.- *Enpresatzat jotzen ez diren eskatzaileak.*

Diruz lagunduko den kostutzat joko da honako inbertsio honen kostua: energiaren kontsumoa arrazionalizatzeari begirako helburuak lortzeko ezinbestekoa den gauzatzea, baita petroliotik eratorritako produktuen mendekotasuna murrizteari begirakoak ere.

### 2.- *Enpresatzat jotzen diren eskatzaileak*

Diruz lagunduko den kostutzat joko da honako inbertsio honen kostu gehigarri hau: aplikagarriak diren Europar Batasunaren arauetatik harago joateko dena, edo ingurumena babesteko maila areagotzeko dena, Europar Batasunaren araurik ezean. Kostu horiek era honetan zehaztu edo ezarriko dira:

- Ingurumena babesteko inbertsioen kostuak inbertsio berezi moduan identifikatu ahal direnean, guztizko inbertsioaren kostuen aldean, ingurumena babesteko inbertsioen kostu horiek diruz lagunduko dira.
- Gainerako kasu guztietan, ingurumena babesteko inbertsioen kostuek antzeko inbertsio baten erreferentziarekin zehaztuko dira, ingurumenaren aldetik ez hain errespetutsua, era sinesgarrian egin zitekeena laguntzarik gabe (inbertsio konbentzionala); bi inbertsio horien arteko kostuen aldeak finkatu edo zehaztuko du ingurumena babesteari dagokion kostua eta diruz lagunduko den kostua izango da.

Energia eraginkortasun maila areagotzeko zuzenki lotuta ez dauden kostuak ez dira diruz lagunduko.

## 6. Dirulaguntzen muga orokorrak.

### 6.1. Laguntzen zenbatekoaren muga orokorra.

Laguntza-deialdi honen eremuaren barruan gauzatzen diren jarduerak laguntza-programa honetako **4. oinarrian** jarduera-mota bakoitzerako ezarritako ehunekoak eta mugak izango dituzte onuradun bakoitzeko mugatira eta gehienez izango duten laguntzaren mugatzat.

### 6.2. Europako araudi aplikagarria.

Laguntza hauek 651/2014 Erregelamenduan ezarritako baldintza eta mugei loturik egongo dira.

Gainera, FEDER funtsekin batera finantza daitezkeen jarduerari, honako hauek aplikatuko zaizkie: Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 Erregelamendua (EB), 2013ko abenduaren 17koa; Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1301/2013 Erregelamendua (EB), 2013ko abenduaren 17koa; eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1299/2013 Erregelamendua (EB), 2013ko abenduaren 17koa; baita eremu horretan horien osagarri edo ordezkoko den beste edozein araudi ere.

### 6.3. Bateragarritasun-araubidea beste laguntza batzuekin.

Oinarri hauetan arauturiko dirulaguntzak ez dira bateragarriak izango helburu berarako ematen diren beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin, halakorik egonez gero, laguntza horiek Espainiako, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk emanda ere.



#### Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

##### Europa egiteko modu bat

#### 6.4. Diruz laguntzekoak diren jarduerak azpikontratatzea edo hirugarren batzuekin kontratatzea.

- a) DLLOko 29. artikuluan eta DLEOko 68. artikuluan xedaturik dagoenaren arabera, onuradun batek azpikontratatzeko duela irizten zaio dirulaguntzaren xede den jarduera osoki edo zati batean gauzatzea hirugarren batzuekin ituntzen duenean. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da, diruz lagundutako jarduera bere kabuz gauzatzeko, onuradunak egin behar dituen gastuen kontratazioa.

Horri dagokionez, hirugarren batzuen azpikontratazioa edo kontratazioa diruz lagundutako % 100eraino iritsi ahalko da, diruz lagundutako jarduera hirugarren batzuekin azpikontratatu edo kontratatzeari aplikatzekoak izanik aipatutako 29. artikuluan jasotzen diren gainerako xedapenak.

- b) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorreko 31.3 artikulua aplikatuz, hori eragozpena izan gabe eskatzailearen izaera juridikoagatik aplikatu behar den Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko (SPKL) araubiderako, diruz laguntzekoak den gastuaren zenbatekoak kontratazio publikoaren arloko araudiak kontratu txikirako ezartzen dituen zenbatekoak gainditzen dituenean (15.000 €, BEZik gabe, zerbitzu eta horniduretarako; eta 40.000 €, BEZik gabe, obretarako), onuradunak hiru eskaintza gutxienez eskatu beharko dizkie beste hainbeste hornitzaileari, obrarako konpromisoa kontratatu, zerbitzua eman edo ondasuna entregatu aurretik, salbu eta, haien ezaugarri bereziengatik, merkatuan halakoak egiten dituzten entitateak merkatuan nahikoa kopurutan ez baleude, edo salbu eta gastua dirulaguntza-eskabidearen aurretik egin izan balitz.

Aurkezturiko eskaintzen artean, eraginkortasunaren eta ekonomiaren irizpideen arabera hautatuko da, eta hautaketa berariaz justifikatu beharko da, kalitate-prezio erlaziorik onena duen proposamena hautatzen ez denean.

#### 7. Kudeaketa eta izapidetze-prozedura.

39/2015 Legeko 14. artikuluan xedaturik dagoenaren arabera eta **Administrazio Elektronikoa**ri buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan (aurrerantzean, «**21/2012 Dekretua**») jasotakoa betez, laguntza-programa honi dagozkion espedienteen izapide guztiak (eskabideak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak eta gainerako gestioak) era telematikoan egingo dira, horretarako berariaz diseinaturiko aplikazio informatikoaren bidez, EEEn webgunean erabilgarri: <https://gestionayudas.eve.eus/solicitud>. Hori guztia, 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusten denaren kalterik gabe, pertsona fisikoen kasuan.

Laguntzak eskatzeko edo izapidetzeko prozedurari loturik, aplikazio informatiko horren bidez era elektronikoa aurkezten den edozein izapide edo agirik 21/2012 Dekretuko 11. artikuluan ezarritakoaren arabera onarturiko sinadura elektronikoa bat eraman beharko dute.

Eskabideak ez baditu betetzen oinarri hauek eskatutako baldintzak, osatugabea bada, edo akatsen bat badu, interesdunari eskatuko zaio, hamar (10) egun balioduneko epean, jakinarazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita, akatsa zuzen dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala. Era berean, jakinarazi egingo zaio, horrela egiten ez badu, eskabidean atzera egindakotzat joko dela, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 21. artikuluan xedaturikoaren arabera emaniko ebazpen baten bidez.

Eskatzen den dokumentazio hori guztia aurkezteko epea ez da inola ere luzatu edo geroratuko EEEn aldetik.

Eskabidea era telematikoan aurkezteko betebeharra duen pertsona juridiko batek aurrez aurre aurkezten badu, ezarritako bide elektronikotik kanpo, alegia, interesdunari eskatuko zaio akats hori zuzen dezala, era elektronikoa aurkeztuta. Ondorio guztietarako, eskabidearen aurkezpen-datatzat joko da akats-zuzenketarena.



### Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

#### Europa egiteko modu bat

#### 8. Laguntza-eskabidea.

Dirulaguntzaren eskabidea eta berarekin batera bidali behar den dokumentazio tekniko-administratiboa **7. oinarrian** azaltzen den aplikazio informatikoaren bitartez egingo da, 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusten denaren kalterik gabe pertsona fisikoen kasuan, eta **3. oinarrian** adierazten den epearen barruan.

Laguntza hauek era zuzenean emango dira, DLL edo LGSen 22. eta 28. artikuluen arabera, eta DLEO edo RGSen I. tituluaren III. kapituluari jarraikiz. Beraz, aurkeztzen diren ordena hertsian hartuko dira kontuan eskabideak (laguntza-eskabideen administrazio-tratamenduari dagokionez 9. oinarriko lehen fasean adierazitakoaren kalterik gabe), funtsak agortu arte. Esleituriko aurrekontua agortuz gero, eta programaren indarraldia bukatu ez baldin bada, eskabideak erregistratzen jarraitu ahal da, behin-behineko erreserba-zerrendan, eta halakoak sarrera-ordena hertsian hartuko dira kontuan; horretarako, beharrezkoa izango da aurreko laguntza-eskabideetako batzuk ezestea edo errebotatzea eta, hala, aurrekontu-zati bat askatzea edo, bestela, deialdiari aurrekontu gehiago gehitzea. Eskabidea behin-behineko erreserba-zerrendara aurkezteak ez du inoiz inolako eskubiderik sortuko eskatzailearentzat, eskabidea baliozkotzen ez den bitartean.

Ibilgailuak eskuratzeko laguntzen eskabideei dagokienez (4. oinarriko 1. jarduera), laguntza eskabide bakoitzean ibilgailu bakarra baino ezingo da sartu.

EEEk era automatikoa egiaztatuko ditu honako hauek: NANA, zerga betebeharrak ordainduta daudela adierazten duten egiaztagirak, Gizarte Segurantzaren ordainketak eginak dauden dokumentuak eta, jarduera ekonomikorik egiten ez duten pertsona fisikoen kasuan, egoitza fiskalaren ziurtagiria, guzti horiek Nafarroako Foru Ogasunari eta Estatuko Zerga Agentziari dagozkienak izan ezik. Hala ere, onuradunak espreski uko egin ahal da onarpen inplizitu horri dirulaguntza eskabidean; horrela eginez gero, kasuan kasu eskatzen zaion egiaztagiria edo dokumentua aurkeztu beharko du, 39/2015 Legearen 28. artikulua 2. paragrafoaren arabera.

Laguntza-eskabidea egiteko, jarduera-mota bakoitzean, aplikazio informatikoaren bidez dokumentazio hau formalizatu eta aurkeztu beharko da:

#### I.- Laguntza-eskabidea eta dokumentazio administratiboa.

##### **Profesional autonomoak.**

- **Laguntza-eskabidea.** Laguntza-eskatzailearen datu orokorrak beteko dira, zein jardueramotatarako eskatzen duen laguntza, jardueraren kokalekua, bai eta haren inguruko datu tekniko xehatuak ere. Halaber, aplikazio informatiko bera erabiliz, adierazpen hauek formalizatuko dira:
  - Eskatzaileak eskabidearen datan emandako erantzukizunpeko adierazpena.
  - Eskabidearen data arte, beste laguntza batzuk eskatu eta/edo jaso izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
  - 651/2014 Erregelamenduaren ondorioetarako, enpresatzat hartzeari buruzko adierazpena.
- **Dokumentazio administratiboa.**
  - EEEri era automatikoa egiaztatzeko baimena eman ez dioten dirulaguntza-eskatzaileak, onuradunaren NANaren kopia. Atzerritarren kasuan, haien nortasuna egiaztatzen duen dokumentu baliokidea, AIZ adierazita.
  - Egoki denean:
    - ✓ Sinatzailearen (legezko ordezkaria) NANaren kopia. Atzerritarren kasuan, haien nortasuna egiaztatzen duen dokumentu baliokidea, AIZ adierazita.
    - ✓ Ahalordetze-eskritturaren edo ordezkaritza egiaztatzeko agiriaren kopia.



### Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

#### Europa egiteko modu bat

- Enpresaburu, Profesional eta Atxikitzaileen Erroldako altaren ziurtagiria edo errolda-goeraren ziurtagiria, dagokion lurraldeko Foru Aldundiak emana.
- Kontuaren IBANa egiaztatzen duen banku-ziurtagiria, kontuaren titularra, nahitaez, eskatzailea dela; izan ere, kontu-zenbaki horretan abonatu da, laguntza-programa honek eskatzen duen prozesuaren baldintza guztiak betetakoan eta behin eskatzaileak onuradun-izaera bereganatuta, azkenean ebatzitako dirulaguntza. Salbuespenez, renting eragiketetan, renting entitatearen kontua baliatuko da (kontuan hartu behar da ordainketa justifikatzeko fasean kontratua egiaztatu beharko dela, bai eta ibilgailuaren ordainagiria eta kobratzeko eskubidea lagatzeko agiria ere).
- EEERI era automatikokoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten dirulaguntza-eskatzaileak, zergei dagozkien ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
- EEERI era automatikokoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten dirulaguntza-eskatzaileak, Gizarte Segurantzari dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztapen eguneratua.
- Egoki denean, balorazio-organo eskudunak emandako desgaitasun-ziurtagiria.
- Egoki denean, eskabidearen datara arte, beste laguntza batzuk emateko beste erakunde batzuen ebazpen positiboaren kopia.

#### Pertsona fisikoak.

- **Laguntza-eskabidea.** Laguntza-eskatzailearen datu orokorrak beteko dira, zein jardueramotatarako eskatzen duen laguntza, jardueraren kokalekua, bai eta haren inguruko datu tekniko xehatuak ere. Halaber, aplikazio informatiko bera erabiliz, adierazpen hauek formalizatuko dira:
  - Eskatzaileak eskabidearen datan emandako erantzukizunpeko adierazpena.
  - Eskabidearen datara arte, beste laguntza batzuk eskatu eta/edo jaso izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
- **Dokumentazio administratiboa.**
  - EEERI era automatikokoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten dirulaguntzaren eskatzaileak, onuradunaren NANaren kopia. Atzerritarren kasuan, haien nortasuna egiaztatzen duen dokumentu baliokidea, AIZ adierazita.
  - Egoki denean:
    - ✓ Sinatzailearen (legezko ordezkaria) NANaren kopia. Atzerritarren kasuan, haien nortasuna egiaztatzen duen dokumentu baliokidea, AIZ adierazita.
    - ✓ Ahalordetze-eskriuren edo ordezkariaren egiaztatzeko agiriaren kopia.
  - Kontuaren IBANa egiaztatzen duen banku-ziurtagiria, kontuaren titularra, nahitaez, eskatzailea dela; izan ere, kontu-zenbaki horretan abonatu da, laguntza-programa honek eskatzen duen prozesuaren baldintza guztiak betetakoan eta behin eskatzaileak onuradun-izaera bereganatuta, azkenean ebatzitako dirulaguntza. Salbuespenez, renting eragiketetan, renting entitatearen kontua baliatuko da (kontuan hartu behar da ordainketa justifikatzeko fasean kontratua egiaztatu beharko dela, bai eta ibilgailuaren ordainagiria eta kobratzeko eskubidea lagatzeko agiria ere).
  - EEERI era automatikokoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten dirulaguntza-eskatzaileak, zergei dagozkien ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
  - EEERI era automatikokoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten dirulaguntza-eskatzaileak, Gizarte Segurantzari dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztapen eguneratua.

2020ko irailaren 16a, asteazkena



## Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

## Europa egiteko modu bat

- Egoki denean, balorazio-organo eskudunak emandako desgaitasun-ziurtagiria.
- Egoki denean, eskabidearen datara arte, beste laguntza batzuk emateko beste erakunde batzuen ebazpen positiboaren kopia.

**Jabekideen erkidegoak.**

- **Laguntza-eskabidea.** Laguntza-eskatzailearen datu orokorrak beteko dira, zein jardueramotatarako eskatzen duen laguntza, jardueraren kokalekua, bai eta haren inguruko datu tekniko xehatuak ere. Halaber, aplikazio informatiko bera erabiliz, adierazpen hauek formalizatuko dira:
  - Eskatzaileak eskabidearen datan emandako erantzukizunpeko adierazpena.
  - Eskabidearen datara arte, beste laguntza batzuk eskatu eta/edo jaso izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
- **Dokumentazio administratiboa.**
  - Jabekideen erkidegoko lehendakariaren NANaren kopia. Atzerritarren kasuan, haien nortasuna egiaztatzen duen dokumentu baliokidea, AIZ adierazita.
  - IFKaren kopia.
  - Erkidegoko lehendakaria izendatzeko aktaren kopia.
  - Egoki denean:
    - ✓ Sinatzailearen (legezko ordezkaria) NANaren kopia. Atzerritarren kasuan, haien nortasuna egiaztatzen duen dokumentu baliokidea, AIZ adierazita.
    - ✓ Ahalordetze-eskrituraren edo ordezkaritza egiaztatze agiriaren kopia.
  - Kontuaren IBANA egiaztatzen duen banku-ziurtagiria, kontuaren titularra, nahitaez, eskatzailea dela; izan ere, kontu-zenbaki horretan abonatu da, laguntza-programa honek eskatzen duen prozesuaren baldintza guztiak betetakoan eta behin eskatzaileak onuradun-izaera bereganatuta, azkenean ebatzitako dirulaguntza. Salbuespenez, renting eragiketetan, renting entitatearen kontua baliatuko da (kontuan hartu behar da ordainketa justifikatzeko fasean kontratua egiaztatu behar dela, bai eta ibilgailuaren ordainagiria eta kobratzeko eskubidea lagatzeko agiria ere).
  - EEeri era automatikoan egiaztatze baimena eman ez dioten dirulaguntza-eskatzaileak, zergei dagozkien ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
  - EEeri era automatikoan egiaztatze baimena eman ez dioten dirulaguntza-eskatzaileak, Gizarte Segurantzari dagozkien ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztargiri eguneratua.
  - Egoki denean, eskabidearen datara arte, beste laguntza batzuk emateko beste erakunde batzuen ebazpen positiboaren kopia.

**Pertsona juridikoak eta beste entitate batzuk, nortasun juridikoa izan zein ez, A, B, C, D, E, F, G, J, R edo W letrarekin hasitako identifikazio fiskaleko zenbakia dutenak.**

- **Laguntza-eskabidea.** Laguntza-eskatzailearen datu orokorrak beteko dira, zein jardueramotatarako eskatzen duen laguntza, jardueraren kokalekua, bai eta haren inguruko datu tekniko xehatuak ere. Halaber, aplikazio informatiko bera erabiliz, adierazpen hauek formalizatuko dira:
  - Eskatzaileak eskabidearen datan emandako erantzukizunpeko adierazpena.
  - Eskabidearen datara arte, beste laguntza batzuk eskatu eta/edo jaso izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.



### Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

#### Europa egiteko modu bat

- 651/2014 Erregelamenduaren ondorioetarako, enpresatzat hartzeari buruzko adierazpena.
- **Dokumentazio administratiboa.**
  - Sinatzailearen (legezko ordezkaria) NANaren kopia. Atzerritarren kasuan, haien nortasuna egiaztatzen duen dokumentu baliokidea, AIZ adierazita.
  - IFKaren kopia.
  - Ahalordetze-eskrituraren edo ordezkaritza egiaztatzeko agiriaren kopia.
  - Eratze-eskrituraren, -estatutuen edo -egintzaren kopia.
  - Kontuaren IBANA egiaztatzen duen banku-ziurtagiria, kontuaren titularra, nahitaez, eskatzailea dela; izan ere, kontu-zenbaki horretan abonatu da, laguntza-programa honek eskatzen duen prozesuaren baldintza guztiak betetakoan eta behin eskatzaileak onuradun-izaera bereganatuta, azkenean ebatzitako dirulaguntza. Salbuespenez, renting eragiketetan, renting entitatearen kontua baliatuko da (kontuan hartu behar da ordainketa justifikatzeko fasean kontratua egiaztatu beharko dela, bai eta ibilgailuaren ordainagiria eta kobratzeko eskubidea lagatzeko agiria ere).
  - EEeri era automatikoa egiaztatzeko baimena eman ez dioten dirulaguntza-eskatzaileak, zergei dagozkien ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
  - EEeri era automatikoa egiaztatzeko baimena eman ez dioten dirulaguntza-eskatzaileak, Gizarte Segurantzaren dagozkien ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
  - Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ziurtagiria.
  - Egoki denean, eskabidearen datara arte, beste laguntza batzuk emateko beste erakunde batzuen ebazpen positiboen kopia.
  - 1. jarduerarako, 8. plazako BEV ibilgailuen kasuan, bidezko bada, «Onura publikoko» erakundea dela egiaztatzen duen dokumentua.
  - 651/2014 Erregelamenduko 1. eranskinaren 2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz enpresa txiki edo ertainak diren eskatzaileak, hori hala dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute, hau da:
    - ✓ Gizarte Segurantzaren ziurtagiria, non enpresako langile kopuruari buruzko informazioa adieraziko den.
    - ✓ Urteko negozio-bolumenaren edo urteko balantze orokorraren egiaztagiria.

#### Toki Erakundeak eta Erakunde Sektore Publikoa.

- **Laguntza-eskabidea.** Laguntza-eskatzailearen datu orokorrak beteko dira, zein jardueramotatarako eskatzen duen laguntza, jardueraren kokalekua, bai eta haren inguruko datu tekniko xehatuak ere. Halaber, aplikazio informatiko bera erabiliz, adierazpen hauek formalizatuko dira:
  - Eskatzaileak eskabidearen datan emandako erantzukizunpeko adierazpena.
  - Eskabidearen datara arte, beste laguntza batzuk eskatu eta/edo jaso izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
  - Atxikipena egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena, Estatuko Administrazio Orokorrekoa, autonomia-erkidego batekoa edo toki-erakunde batekoa den zehazturik, eta merkataritza-jardueraren bat gauzatzen duen ala ez aditzera emanik.
  - Egoki denean, 651/2014 Erregelamenduaren ondorioetarako, enpresatzat hartzeari buruzko adierazpena.



### Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

#### Europa egiteko modu bat

- **Dokumentazio administratiboa.**
  - Sinatzailearen (legezko ordezkaria) NANaren kopia. Atzerritarren kasuan, haien nortasuna egiaztatzen duen dokumentu baliokidea, AIZ adierazita.
  - Karguduna edo legezko ordezkaria izendatzeko ziurtagiri, egintza edo eskrituraren kopia.
  - IFKaren kopia.
  - Kontuaren IBANa egiaztatzen duen banku-ziurtagiria, kontuaren titularra, nahitaez, eskatzailea dela; izan ere, kontu-zenbaki horretan abonatu da, laguntza-programa honek eskatzen duen prozesuaren baldintza guztiak betetakoan eta behin eskatzaileak onuradun-izaera bereganatuta, azkenean ebatzitako dirulaguntza. Salbuespenez, renting eragiketetan, renting entitatearen kontua baliatuko da (kontuan hartu behar da ordainketa justifikatzeko fasean kontratua egiaztatu beharko dela, bai eta ibilgailuaren ordainagiria eta kobratzeko eskubidea lagatzeko agiria ere).
  - EEERI era automatikokoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten dirulaguntza-eskatzaileak, zergei dagozkien ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
  - EEERI era automatikokoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten dirulaguntzaren eskatzaileak, Gizarte Segurantzari dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
  - Egoki denean, eskabidearen datara arte, beste laguntza batzuk emateko beste erakunde batzuen ebazpen positiboaren kopia.

#### II.- Dokumentazio teknikoa (laguntzaren eskatzaile guztientzat).

##### 1. Jarduera.

- Aurrekontu banakatua. Rentingeko errentamenduan, enpresa errentatzailearen eskaintzaren kopia, abonatu beharreko kopia jasota bertan, bai eta kuota horretatik ibilgailuaren kostuari egoztekoa den zatia ere.

##### 2., 3. eta 4. jarduerak.

- Aurrekontu banakatua.
- Gauzatuko diren jardueri buruzko deskribapen-txostena, jardueraren deskribapena eta norainokoa, inbertsioa, diruz laguntzeko den kostua eta eskatzen den laguntza jasota, gutxienez. Honako datu tekniko hauek bilduko dira:
  - *Kargatzeko instalazioaren ezaugarri teknikoak (konektore mota, potentzia).*
  - *Instalazioaren eskema elektrikoa.*
  - *Kargagunea kokatuko den lekuaren planoak.*

#### **Tramitazio elektronikoari dagokionez, dokumentu guztiak, ahal dela, PDF formatuan aurkeztuko dira.**

EEEk informazio eta dokumentazio osagarriak eskatu ahalko dizkio eskatzaileari, laguntza-eskabidea ongi aztertzeko beharrezkoa deritzon.

#### **9. Ebazpena, jakinarazpena eta publizitatea.**

Laguntza-eskabideen ebazpenak segidako konkurrentziako prozedura baten bidez ebatziko dira; hala, eskabideak aztertu eta izapidetuko dira aurkezten diren ordenan, eta behar bezala formalizatu eta osatu ahala eta ordena horretan ebatziko dira. Eskabideak akatsen bat bada eta zuzendu behar bada, aurkezpen-datatzat joko da **7. oinarrian** ezarritakoa.



### Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

#### Europa egiteko modu bat

EEEko zuzendari nagusiak ebatzi, eta era elektronikoan jakinaraziko dio ebazpena eskatzaileari, **7. oinarrian** aipatutako aplikazio informatikoaren bidez, sei (6) hilabeteko epean gehienez, laguntza-eskabidearen aurkezpen-datatik zenbatzen hasita (39/2015 Legeko 21.2 artikulua). Epe hori igarotzen bada berariazko ebazpenik jakinarazi gabe, eskabidea ezetsizat joko da.

Ebazpenean hauek adieraziko dira: (i) laguntzaren xede den jarduera; (ii) laguntzaren zenbatekoa (zenbateko gordina, onuradunaren izaeragatik egon daitezkeen tributu-betebeharrak aintzat hartu gabe); (iii) interesgarritzat jo diren beste alderdi batzuk; (iv), hala dagokionean, ezesteko arrazoiak.

Ebazpena behin betikoa izango da administrazio-bidean, eta haren aurka, aukeran, berraztertzeo errekurtsioa jarri ahalko da EEEko zuzendari nagusiaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahalko da Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita, hori guztia bat etorrita 39/2015 Legeko 123. eta 124. artikuluekin eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzeko uztailaren 13ko 29/1998 Legeko (aurrerantzean, «**29/1998 Legea**») 46.1 artikuluekin.

Laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketa orok, baldin eta dirulaguntzen arloko araudiak onuradun izateko ezarriko gutxieneko baldintzak gordetzen badira, laguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake berekin, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarrita dagoen eran (DLEOko 19.4 artikulua eta 1/1997 Legegintzako Dekretuko 49.2 artikulua).

Azkenik, laguntza-programa bukatutakoan, eta Gardentasunari, Informazio Publiko Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzko irailaren 9ko 19/2013 Legearen arabera (aurrerantzean, «**19/2013 Legea**») nahiz DLEOaren arabera, EEEK laguntza-programa honen bidez emandako dirulaguntzak EHAAn eta bere gardentasun-atarian argitaratuko ditu, legeak eskatzen dituen datuak adierazirik.

#### **10. Laguntzak ordaintzea.**

Onuradunek ezingo dute jaso laguntzaren ordainketa, zenbatekoak itzultzeko betebeharren bat bete gabe dutenean, administrazio orokorrak eta instituzionalak, haien organo autonomoek eta/edo EEEK emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzaren bati dagozkion zenbatekoak itzultzeari dagokionez.

Egoera hori gertatzen denean, kontuan hartu eta aztertu beharko da ea sortutako itzulketa-betebeharra borondatez ordaintzeko epean ala betearazpen-bidean dagoen. Onuradunek dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa egunean dutela iritziko zaio, betearazpen-epeko zorrik ez dutenean dirulaguntza horiek eman dituen administrazioarekin, dirulaguntzok itzuli behar izateagatik; edo, diren direlako onuradunen edo entitate laguntzaileen aurka premiamendu-bidea erabiltzea bidezkoa ez dela, borondatez ordaintzeko epean ez dutenean halako zorrik. Halaber, onuradunek dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa egunean dutela iritziko zaio zorrik geroratuta edo zatikatuta daudenean, edo ordainketa etetea erabaki denean, itzultza behartzen duen ebazpena aurkaratu dela eta (DLEOko 21. artikulua).

EEEk dirulaguntza abonatu du onuradunak horretarako adierazitako banku-kontuan, behin azken horrek laguntza-eskabidean identifikaturiko proiektua burututa, eta EEERI alde aurretik aurkeztuta diruz lagundutako jarduerak nahiz egindako gastuak egiaztatzeko moduko justifikazio-dokumentazioa.

Diruz lagunduko den jardueraren amaierari lotutako dokumentuen justifikazioa aplikazio informatika baten bidez egingo da, hasieran dirulaguntza eskabidea bideratzeari begira erabiliko den aplikazio bera, 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusten denaren kalterik gabe pertsona fisikoen kasuan.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla adierazten duten dokumentuak, Nafarroako Foru Ogasunari eta Estatuko Zerga Agentziari dagozkienak izan ezik, era automatikoan eta ofizioz egiaztatuko ditu EEEK. Hala ere, onuradunak espreski uko egin ahalko dio onarpen inplizitu horri;



### Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

#### Europa egiteko modu bat

horrela eginez gero, kasuan kasu eskatzen zaion egiaztagiria edo dokumentua aurkeztu beharko du; hori guztia, 39/2015 Legaren 28. artikulua 2. paragrafoaren arabera.

Behin dirulaguntzaren xede den jarduera gauzatzeko bukatuta, laguntza emateko ebazpena jakinarazi ondoren betiere, eta hamabi (12) hilabete igaro baino lehen, laguntza emateko ebazpena jakinarazi zenetik zenbatzen hasita, onuradunak ordainketa-eskabidea izapidetu beharko du, eta EEERI aurkeztu, era elektronikoa, 7. oinarrian adierazitako aplikazio informatikoa bidez, hurren adierazten den dokumentazioa:

#### I.- Ordainketa-eskabidea eta dokumentazio administratiboa.

##### **Profesional autonomoak.**

- **Ordainketa-eskabidea.** Agiri hau betez, *proiektua burutu izana* jakinarazten da. Atal honetan, halaber, adierazpen hauek formalizatuko dira:
  - Onuradunak justifikazio-datan emandako erantzukizunpeko adierazpena.
  - Justifikazioaren datara arte, beste laguntza batzuk eskatu eta/edo jaso izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
- **Dokumentazio administratiboa:**
  - Enpresaburu, Profesional eta Atxikitzaileen Erroldako altaren ziurtagiria, dagokion lurraldeko Foru Aldundiak emana.
  - EEERI era automatikoa egiaztatze baimena eman ez dioten dirulaguntza-eskatzailak, zergei dagokien ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
  - EEERI era automatikoa egiaztatze baimena eman ez dioten dirulaguntza-eskatzailak, Gizarte Segurantzaren dagokien ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiria eguneratua.
  - Egoki denean, justifikazioaren datara arte, beste laguntza batzuk emateko beste erakunde batzuen ebazpen positiboen kopia.

##### **Pertsona fisikoak.**

- **Ordainketa-eskabidea.** Agiri hau betez, *proiektua burutu izana* jakinarazten da. Atal honetan, halaber, adierazpen hauek formalizatuko dira:
  - Onuradunak justifikazio-datan emandako erantzukizunpeko adierazpena.
  - Justifikazioaren datara arte, beste laguntza batzuk eskatu eta/edo jaso izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
- **Dokumentazio administratiboa:**
  - EEERI era automatikoa egiaztatze baimena eman ez dioten dirulaguntza-eskatzailak, zergei dagokien ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
  - EEERI era automatikoa egiaztatze baimena eman ez dioten dirulaguntza-onuradunak, Gizarte Segurantzaren dagokien ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiria eguneratua.
  - Egoki denean, justifikazioaren datara arte, beste laguntza batzuk emateko beste erakunde batzuen ebazpen positiboen kopia.



### Eskualde Garapenerako Europako Funtsa (EGEF)

Europa egiteko modu bat

#### Jabekideen erkidegoak.

- **Ordainketa-eskabidea.** Agiri hau betez, *proiektua burutu izana* jakinarazten da. Atal honetan, halaber, adierazpen hauek formalizatuko dira:
  - Onuradunak justifikazio-datan emandako erantzukizunpeko adierazpena.
  - Justifikazioaren datara arte, beste laguntza batzuk eskatu eta/edo jaso izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
- **Dokumentazio administratiboa:**
  - EEeri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten dirulaguntza-eskatzaileak, zergei dagozkien ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
  - EEeri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten dirulaguntza-onuradunak, Gizarte Segurantzaren dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiria eguneratua.
  - Egoki denean, justifikazioaren datara arte, beste laguntza batzuk emateko beste erakunde batzuen ebazpen positiboaren kopia.

#### Pertsona juridikoak eta beste entitate batzuk, nortasun juridikoa izan zein ez, A, B, C, D, E, F, G, J, R edo W letrarekin hasitako identifikazio fiskaleko zenbakia dutenak.

- **Ordainketa-eskabidea.** Agiri hau betez, *proiektua burutu izana* jakinarazten da. Atal honetan, halaber, adierazpen hauek formalizatuko dira:
  - Onuradunak justifikazio-datan emandako erantzukizunpeko adierazpena.
  - Justifikazioaren datara arte, beste laguntza batzuk eskatu eta/edo jaso izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
- **Dokumentazio administratiboa:**
  - EEeri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten dirulaguntza-eskatzaileak, zergei dagozkien ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
  - EEeri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten dirulaguntza-onuradunak, Gizarte Segurantzaren dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiria eguneratua.
  - Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ziurtagiria.
  - Egoki denean, justifikazioaren datara arte, beste laguntza batzuk emateko beste erakunde batzuen ebazpen positiboaren kopia.

#### Toki Erakundeak eta Erakunde Sektore Publikoa

- **Ordainketa-eskabidea.** Agiri hau betez, *proiektua burutu izana* jakinarazten da. Atal honetan, halaber, adierazpen hauek formalizatuko dira:
  - Onuradunak justifikazio-datan emandako erantzukizunpeko adierazpena.
  - Justifikazioaren datara arte, beste laguntza batzuk eskatu eta jaso izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
- **Dokumentazio administratiboa:**
  - EEeri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten dirulaguntza-eskatzaileak, zergei dagozkien ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.



### Eskualde Garapenerako Europako Funtsa (EGEF)

#### Europa egiteko modu bat

- EEeri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten dirulaguntza-onuradunak, Gizarte Segurantzari dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiria eguneratua.
- Egoki denean, justifikazioaren datara arte, beste laguntza batzuk emateko beste erakunde batzuen ebazpen positiboaren kopia.

#### II.- Dokumentazio teknikoa (onuradun quztientzat).

##### 1. Jarduera.

- Eskuratutako Ibilgailuaren txartel teknikoaren kopia.
- Eskuratutako ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren kopia. Gainera, bederatzi hilabeterainoko antzinatasuneko ibilgailu elektrikoaren eta erregai-piladunen kasuetan (demostrazio-ibilgailuak), ibilgailuaren zirkulazio-baimena aurkeztuko da, laguntzaren azken hartzaileari ibilgailuari saltzen dion kontzesionarioaren, saltokiaren edo fabrikatzaile zein inportatzailearen izenean.
- Ibilgailuaren salerosketa-faktura, laguntza-eskabidea erregistratu zenekoaren ondoko datarekin (alde batera utzi gabe 1. jardueraren eraginpean egoteko moduan dauden ibilgailuak eskuratzeko adierazitakoa, eskatzaileak jarduera profesionalik ez duten edo jarduera ekonomikoa garatzen ez duten pertsona fisikoak badira), faktura onuradunaren izenean emana, 2.1 oinarrian adierazitakoaren arabera. Autofakturak ez dira onargarriak izango. Fakturan, eskuratutako ibilgailuaren matrikula edo bastidore-zenbakia, marka, modeloa eta bertsioa adierazi beharko dira, baita fabrikatzaile edo inportatzaileak zein saltokiak, «Moves II Programaren» kontura, gutxienez 1.000 euroko deskontua egin duela adierazi ere, M1 eta N1 kategorietako ibilgailuak eskuratzeko direnean, BEZa edo IGIC zerga ezarri aurretik islatu beharko dena. Fakturan adieraziko da, halaber, programari dagokion laguntza publikoa eta dagokion zenbatekoa, Laguntza Programaren Oinarrietan adierazitakoaren arabera, eta BEZa edo IGIC zerga ezarri ondoren islatu beharko da, «Moves II Programaren» kontura.
- Renting bidez egindako jardueretarako. Renting edo leasing operatiboko kontratuaren fotokopia, bi urteko gutxienezko iraupena ezarriko duena, eta kontratuaren errentaria, laguntza-eskatzaile edo laguntzaren azken hartzailea izan daitekeena dela adierazten duena. Gainera, argi eta garbi adieraziko da renting enpresak laguntzaren gutzitza jasanaraziko duela errentariak ordaintzeke dauzkan kuotetan, renting enpresak laguntzaren zenbatekoa jasotzen duen dataz geroztik. Ordaintzeke dauden kuoten batura txikiagoa bada laguntzaren zenbatekoa baino, renting kontratuaren barruan bildu beharko dira, halaber, errentamendu-kontratuaren amaieran azken hartzaileari laguntza-soberakina ordaintzeko modua eta epea.
- Renting bidez egindako jardueretarako, laguntza zuzenean azken hartzailearen bitartez tramitatu bada, endosu-dokumentua, non renting enpresari laguntza jasotzeko baimena emango zaion.
- Eskuratutako Ibilgailuaren salerosketa-faktura ordaindu izana justifikatzen duten agiriak, honako hauek identifikatzeko moduan: laguntzaren azken hartzailea; ordainketa jasotzen duen hirugarrena; ordainketa-data (balio-data); eta dirulaguntzaren xede den ibilgailua. Renting kasuan, enpresa errentatzailea identifikatu beharko da.
- Demostrazio-ibilgailu gisa tipifikatu eta merkaturatzen diren ibilgailuen kasuan, kontzesionarioaren erantzukizunpeko adierazpena; bertan, onuradunak eskuratutako ibilgailuak lehen matrikulazioan inolako dirulaguntzarik jaso ez duela adieraziko da. Horrez gain, kontzesionarioaren IFK adieraziko da, baita Moves II laguntza-programaren esparruan orain arte saldutako demostrazio-ibilgailuen kopurua ere.



### Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

#### Europa egiteko modu bat

- Ibilgailuren bat txatar bihurtzen denean:
  - ✓ Egoki denean, «Ibilgailuaren behin betiko baja egiaztatzen duen ziurtagiria»ren kopia, dagokion ibilgailuen tratamendurako zentro baimendunak (TZB) emana, DGTren izenean; edo, bestela, dagokion probintziako trafiko-buruzagitzako Ibilgailu Erregistro Orokorren txostena, behin betiko baja egiaztatzekoa.
  - ✓ Egoki denean, txatar bihurtutako ibilgailuaren fitxa teknikoaren (IAT txartela) aurrealdearen zein atzealdearen kopia, ibilgailuaren azken azterketa teknikoaren data eta azterketa horren iraungitze-data jasota; edo, agiri hori aurkeztu ezean, DGTren txostena, ibilgailuaren historiarekin.
  - ✓ Egoki denean, txatar bihurtutako ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren kopia, honako hauek jasota: lehen matrikulazio-data; Espainiako matrikulazioaren data; eta baimen hori emandako data; edo, agiri hori aurkeztu ezean, DGTren txostena, ibilgailuaren historiarekin.
  - ✓ Egoki denean, txatar bihurtutako ibilgailuaren Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren ordainagiriaren kopia, behar bezala ordainduta, 2019ko ekitaldiaz geroztik gutxienez.

#### 2. Jarduera.

- Egindako instalazioaren txosten teknikoa edo proiektua, halakoa behar izanez gero, behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoaren arabera.
- Karga-sistemen kokapena, plano batean erreferentziatua, helbidea, zenbakia eta longitudeko eta latitudeko GNSSS koordinatuak adierazita (GPS, Galileo edo bestelako konstelazioak, uztailearen 27ko 1071/2007 Errege Dekretuarekin bateragarriak). Eraikinen eta aparkalekuaren kasuan, ibilgailuen sarbide nagusiari dagozkion koordinatuak adieraziko dira.
- Instalatutako kargagunearen argazkiak.
- Faktura xehatuak, laguntzaren xede diren kontzeptuak identifikatzeko moduan. Haien data izan behar da, edozein kasutan, laguntza-eskabidearen erregistro dataren ondorengoa.
- Fakturak ordaindu izana justifikatzen duten agiriak, honako hauek identifikatzeko moduan: laguntzaren azken hartzailea; ordainketa jasotzen duen hirugarrena; ordainketa-data (balio-data); eta kargagunea identifikatzeko beharrezkoak diren datuak.
- Eskatzailea pertsona juridiko publikoa bada, laguntzaren xede diren ondasun eta/edo zerbitzuak eskuratzeko helburuz, eginiko lizitazioari dagozkion baldintza-agirien argitaratze-data egiaztatzen duen ziurtagiria, dena delako pertsona juridiko publiko onuradunaren organo eskudunak emana.
- Laguntzaren xede diren ondasun eta/edo zerbitzuen hornidura-kontratuaren kopia.
- Obra zibilaren gauzatzeko ziurtagiria, teknikari eskudunak emana. Egoki denean, jarduerak justifikazio-agiriak aurkeztu beharko dituzte, nahitaezko lizentzia eta baimen administratiboak badituztela egiaztatzeko.

#### 3. Jarduera.

- Egindako obraren txostena.
- Faktura xehatuak, laguntzaren xede diren kontzeptuak identifikatzeko moduan. Haien data izan behar da, edozein kasutan, laguntza-eskabidearen erregistro dataren ondorengoa.
- Fakturak ordaindu izana justifikatzen duten agiriak, honako hauek identifikatzeko moduan: laguntzaren azken hartzailea; ordainketa jasotzen duen hirugarrena; ordainketa-data (balio-data); eta laguntzaren xede den proiektua identifikatzeko beharrezkoak diren datuak.

2020ko irailaren 16a, asteazkena



### Eskualde Garapenerako Europako Funtsa (EGEF)

#### Europa egiteko modu bat

- Eskatzailea pertsona juridiko publikoa bada, laguntzaren xede diren ondasun eta/edo zerbitzuak eskuratzeko helburuz, eginiko lizitazioari dagozkion baldintza-agirien argitaratze-data egiaztatzen duen ziurtagiria, dena delako pertsona juridiko publiko onuradunaren organo eskudunak emana.
- Laguntzaren xede diren ondasun eta/edo zerbitzuen hornidura-kontratuaren kopia.
- Obra zibilaren gauzatze-ziurtagiria, teknikari eskudunak emana.

#### 4. jarduera.

- Lantokira Garraiatzeko Plana, edo Hiri Mugikortasun Jasangarriko Plana, edo neurria biltzen duen gida-plana, estrategia edo akordioa.
- Faktura xehatuak, laguntzaren xede diren kontzeptuak identifikatzeko moduan. Haien data izan behar da, edozein kasutan, laguntza-eskabidearen erregistro dataren ondorengoa.
- Fakturak ordaindu izana justifikatzen duten agiriak, honako hauek identifikatzeko moduan: laguntzaren azken hartzailea; ordainketa jasotzen duen hirugarrena; ordainketa-data (balio-data); eta laguntzaren xede den proiektua identifikatzeko beharrezkoak diren datuak.
- Eskatzailea pertsona juridiko publikoa bada, laguntzaren xede diren ondasun eta/edo zerbitzuak eskuratzeko helburuz, eginiko lizitazioari dagozkion baldintza-agirien argitaratze-data egiaztatzen duen ziurtagiria, dena delako pertsona juridiko publiko onuradunaren organo eskudunak emana.
- Laguntzaren xede diren ondasun eta/edo zerbitzuen hornidura-kontratuaren kopia.

Egintza bakarrean eta erabat osaturik egingo da ordainketa-eskabidea eta aurkeztuko da dokumentazioa. Horrela, eginiko ordainketa-eskabidea osatugabea bada, edo akatsen bat badu, edo posta arruntez edo aurrez aurre aurkeztu bada, akatsen zuzenketa eskatzeko dagokion idazkiaren bidez, onuradunari hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio, jakinarazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita, laguntzaren onuradunak zuzenketa egin dezan (39/2015 Legeko 68. artikulua).

EEEK ez du hedatu edo luzatuko, inola ere, justifikazio-dokumentazioa osorik aurkezteko emandako epea. Justifikazioa ez bada atal honetan ezarritako epean aurkezten, horrek itzulketa eskatu beharra ekarriko du berekin, bai eta DLLOn ezarritako gainerako erantzukizunak ere.

Behin eskatutako dokumentazioa jaso eta gero, aztertu egingo da. Aurkeztutako dokumentazioaren balorazio positiboa ondorioztatzen bada, EEEK laguntza abonatu du, funtsen jatorria berariaz aditzera emanik, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa eta FEDER aipaturik, baldin eta erakunde finantzatzaile horiek batera finantzatutako jarduera bada. Aitzitik, aurkezturiko justifikazio-dokumentazioa egiaztatu eta gero, ikusten bada azken dirulaguntza-zenbatekoak txikiagoa izan beharko lukeela hasieran emandakoa baino, laguntza zati batean errebokatzeko espediente bati hasiera emango zaio. Bestalde, egoera hauetakoren bat gertatuz gero:

- Eskatutako dokumentazio guztia ezarritako epean ez aurkeztea.
- Laguntza emateko ebazpena jakinarazi zenetik zenbatzen hasita, dirulaguntzaren xede den jarduera gauzatu izana eta dagokion fakturazioa hamabi (12) hilabeteko epea igaro baino lehen ez egiaztatzea.
- Oinarri hauetan eta/edo dirulaguntzen arloko araudian jasotako beste edozein baldintza ez betetzea.

Orduan, EEEK laguntza erabat errebokatzeko espediente bati emango dio hasiera.

Laguntza errebokatzeko kasu batean zein bestean, laguntza kobratzeko eskubidearen galera deklaratu da, DLEOko 89. artikuluan xedaturik dagoenaren arabera eta, horretarako, DLLOko 42. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz.



### Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

#### Europa egiteko modu bat

#### 11. Inbertsioak egiaztatzea.

Dirulaguntza emateko ebazpen bat eman eta gero, eta dirulaguntzaren xede den jardueraren benetan gauzatu dela egiaztatzeko helburuz, EEEK inbertsioen egiaztatpena eraman ahalko du aurrera, eta eskuratutako ibilgailuen edo egindako inbertsioen erakusgarri diren argazkiak egin ahalko ditu, eta eskatu EEEK beharrezkoa deritzon dokumentazio gehigarri guztia, espedientean jaso gabekoa, laguntzen erabilera fiskalizatzeko bere eginkizunak betetze aldera.

Inbertsioak dirulaguntzaren xede den jardueraren tokian bertan, «in situ», egiaztatu behar dela irizten zaionean, EEEK alde aurretik jakinaraziko die onuradunei, eta azken horiek egiaztatpena erraztu egin beharko dute.

EEEK aurreikusitako inbertsio-egiaztatpena jakinarazi duela, hurrengo bi asteetan, eta EEeri egoztekoak ez diren arrazoiak direla eta, egiaztapen hori ezin bada egin, idatziz jakinaraziko zaio onuradunari, eta berak hamabost (15) egun baliodun izango ditu beste egun bat finkatzeko, inbertsioak egiaztatzea errazteko. Bestela, EEEK laguntzaren zenbatekoa erabat errebokatze espediente bati emango dio hasiera.

Behin inbertsioak egiaztatzen jasotako informazioa kontrastatuta, ondorioztatzen bada dirulaguntza-zenbatekoak txikiagoa izan beharko lukeela, edo dirulaguntza ematea bidezkoa ez dela, EEEK hasiera emango dio, hurrenez hurren, laguntza zati batean edo erabat errebokatze espediente bati, eta, hala dagokionean, laguntzaren zati bat edo laguntza osoa itzultzeko eskatuko du; dena den, horrek ez du eragotziko legezko akzioak edo zehapenak aurrera eramatea, halakoak bidezkoak baldin badira.

#### 12. Onuradunen betebeharrak.

Laguntza-deialdi honen bidez arauturiko laguntzen onuradunek, betiere, honako betebeharrak izango dituzte:

- a. DLLOko 14. eta 46. artikuluetan eta 1/1997 Legegitzako Dekretuko 50.2 artikuluan ezarritakoak.
- b. Emandako laguntza onartzea. Hori dela eta, laguntza eman izanaren jakinarazpena jasotzen den egunetik zenbatzen hasita, hamabost (15) egun balioduneko epean, onuradunak ez badio berariaz eta idatziz uko egiten laguntza horri, onartutzat joko da, bai diruari dagokionez, bai ebazpenean nahiz laguntza-deialdi honetan jasotako gainerako baldintzei dagokienez.
- c. Laguntza hori emandako helburu zehatzerako erabiltzea.
- d. Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuari (aurrerantzean, «**IDAE**») eta Trantsizio Ekologikoaren Ministerioari ematea beren eginkizunak betez eskatzen dioten informazio guztia, laguntza-deialdi honen kontura jasotako laguntzei buruz, eta, zehazki, EEEK bere aldetik IDAeri helarazi behar dion informazio hori guztia, 569/2020 EDko IV. eranskinean xedatutako betetze aldera.
- e. Oinarri hauen bidez arauturiko laguntzen xede den jarduerari buruz onuradunak egiten duen erreferentzia orok —argitalpen, zabalkunde-jardueraren, webgune eta, oro har, edozein zabalkunde-bidetan— EEEK zehaztutako eskakizunak, hala badagokio, eta Programaren Irudi Eskuliburuan jasotako baldintzak bete beharko ditu (IDAEn webgunean egongo da eskuragarri); hala, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa eta Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa agertuko dira arauaren baterako proposatzaile gisa, baita «*Mugikortasun eraginkor eta jasangarria sustatzeko pizgarri-programa, Moves II Programa*» ere, DLLOko 18.4 artikuluan eta DLEOko 31. artikuluan xedatu bezala.
- f. EEeri jakinaraztea helburu bererako dirulaguntzak edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskatu edo lortu izana, beste edozein administrazioi edo erakunde publiko zein pribatuk emanak.
- g. Jarduerak aplikagarriak zaizkion erregelamendu eta araudiak betez gauzatzea, eta haien osagaiek dagokien homologazioa izan beharko dute, erakunde eskudunak emana. Horrela, onuradunak bere

2020ko irailaren 16a, asteazkena



## Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

## Europa egiteko modu bat

gain hartzen du dirulaguntzaren xede den proiektua erabat bat etortzea indarrean den araudi aplikagarria, araudi hori teknikoa, hirigintzakoa nahiz beste edozein izaerakoa izanik ere.

- h. Laguntza-deialdi honek diruz lagundutako ibilgailu baten edo beste edonolako material mugikor baten jabeak hura birsalduko balu lau (4) urtetik beherako epe batean, laguntza abonatu zenetik zenbatzen hasita, salmentaren kontratu-agirian berariaz jasota utzi beharko du ibilgailu edo material mugikor horrek Mugikortasun eraginkor eta jasangarria sustatzeko pizgarri-programaren (Moves Programa) laguntza jaso duela, eta eskuratzailerak bere gain hartzen duela konpromisoa, aipatutako epea bete arte, gutxienez, ondasun hori laguntza emateko arrazoia izan zen helburu zehatzerako erabiltzeko, eta funtzionamendu-egoera egokian mantentzeko. Bestela, EEEk laguntza errebokatzeko espediente bati emango dio hasiera.

Gertatuz gero, besterentze hori EEeri jakinarazi behar zaio, hilabeteko epean gehienez, laguntzaren xede izan den ibilgailuaren, edo material mugikorraren, kontratu-agiria sinatzen denetik zenbatzen hasita.

Erosleak ez baditu betetzen besterentze horrek berekin dakartzan baldintzak, laguntzaren onuraduna konprometitu egiten da, jasotako laguntza itzultzeko betebeharra bere gain hartzera.

- i. Rentingeko errentamendu-kontratu-erarako, kontratua garaiz aurretik hutsalduko balitz, errentariak bere gain hartzen du konpromisoa, EEeri itzultzeko Mugikortasun eraginkor eta jasangarria sustatzeko pizgarri-programaren (Moves II Programa) barruan jasotako laguntza. Bestela, EEEk laguntza zati batean edo erabat errebokatzeko, kasuan kasukoa, espediente bati emango dio hasiera.

Gertatuz gero, egoera hori EEeri jakinarazi behar zaio bi hilabeteko epean gehienez, azken faktura ordaintzen denetik zenbatzen hasita.

- j. Laguntza-deialdi honek diruz lagundutako kargatze elektrikoko azpiegiturak hamar (10) urteko epe batean, gutxienez, gorde beharko dituzte jabetzan laguntzen onuradunek, eta epe horretan funtzionamendu-egoera egokian mantendu beharko dute, eta laguntza-eskabidean zein geroagoko justifikazioetan adierazitako zerbitzuak, kargatze elektrikokoak, ematen. Hamar (10) urteko gutxienez epe hori igaro baino lehen, laguntza-deialdi honen kontura diruz lagundutako instalazioen bat besterentzen duen onuradun orok salmentaren kontratu-agirian berariaz jasota utzi beharko du inbertsio horrek Mugikortasun eraginkor eta jasangarria sustatzeko pizgarri-programaren (Moves II Programa) laguntza jaso duela, jabe berriari jakinarazita bai jasotako dirulaguntza, bai oinarri hauetan ezarritako betebeharrak, eta eskuratzailerak bere gain hartzen duela konpromisoa, aipatutako epea bete arte, gutxienez, ondasun hori laguntza emateko arrazoia izan zen helburu zehatzerako erabiltzeko, eta funtzionamendu-egoera egokian mantentzeko. Bestela, EEEk laguntza erabat errebokatzeko espediente bati emango dio hasiera.

Gertatuz gero, besterentze hori EEeri jakinarazi behar zaio, hilabeteko epean gehienez, laguntzaren xede izan diren instalazioen eta/edo ekipamenduen salmentaren kontratu-agiria sinatzen denetik zenbatzen hasita.

Erosleak ez baditu betetzen besterentze horrek berekin dakartzan baldintzak, laguntzaren onuraduna konprometitu egiten da, jasotako laguntza itzultzeko betebeharra bere gain hartzera.

- k. Onuradunak konpromisoa hartzen du, EEeren eskariz, erregistratutako emaitza energetikoen bilakaerari buruzko informazioa emateko, eta informazio horri zabalkundea ematea baimentzeko, lau (4) urteko epe batean ibilgailu eta material mugikorraren kasuan eta hamar (10) urteko epe batean gainerako proiektuen kasuan, EEEk laguntzak abonatzen dituenetik zenbatzen hasita, batean zein bestean.
- l. EEeri jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan hartu zen edozein zirkunstantzia objektiboren edo subjektiboren aldaketa oro.

2020ko irailaren 16a, asteazkena



## Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

## Europa egiteko modu bat

- m. Laguntzen erabilera fiskalizatzeko bere eginkizunak betetze aldera, EEEK eskatzen duen informazio guztia ematea.
- n. Diruz lagundutako proiektuaren inguruan egiten diren komunikazioko eta sustapeneko ekintza guztiek –paperezko euskarrian, euskarri elektronikokoak edo ikus-entzunezko euskarrian– berariazko erreferentzia egin beharko diote proiektu horrek dirulaguntza jaso izanari, Mugikortasun eraginkor eta jasagarria sustatzeko pizgarri-programaren (Moves Programa) barruan eta 569/2019 EDko 13. artikuluan xedaturikoaren arabera.
- o. EEEren eskura jartzea diruz lagundutako proiektuaren ondoriozko informazioa, emaitzei zabalkundea emateko helburuz, alde aurretik adostuta, era bateratuan.
- p. FEDER funtsekin batera finantzaturako programa bat den aldetik, baliabide horietatik eratorritako obligazioak norbere gain hartu beharko dira.

**13. Ez betetzea eta itzultzea.**

Bidezkoa izango da jasotako zenbatekoak zati batean edo osorik itzultzea eta dagokien berandutze-interesa eskatzea (diruaren legezko interesa % 25 gehituta, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean beste bat ezarri ezean), dirulaguntza ordaintzen den unetik itzultzearen bidezko tasuna ebazten den egunera bitartean, DLLOko 37. artikuluan ezarritako kasuetan. Eta zati bat itzuli behar denean, aipaturako DLLOko 37.2 artikuluan xedaturiko mailakatzeko irizpideei jarraituko zaie.

Deialdi honetan, 15. oinarrian jasotako gainerako arau aplikagarrietan, eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak –azken horretan ezarritako gero, betiere– ez betetzeak laguntza hori zati batean edo erabat errebokatzeko eragingo du, ez betetzeari buruzko dagokion espedientearen ondoren, bai eta EEERI laguntza eta berandutze-interesak itzultzeko betebeharra ere, horren inguruan 1/1997 Legegintzako Dekretuan xedatutakoaren arabera, bai eta *abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuko II. tituluaren ere (Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten Izaki Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen)*, dena den, horrek ez du eragotziko legezko akzioak edo zehapenak aurrera eramatea, halakoak bidezkoak baldin badira.

Errebokatzeko eta, hala dagokienez, laguntzak zati batean edo osorik itzultzeko espedientei hasiera ematea eta haiek ebaztea EEEko zuzendari nagusiaren esku egongo da.

**14. Eskatzaileentzako informazioari buruzko klausula.**

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA (Datu pertsonalak babesteari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamendua betez)	
<b>Tratamenduaren arduraduna</b>	ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE) IFZ: Q5150001E Helbidea: Urkixo zumarkalea 36, 1. solairua, 48011, Bilbo (Bizkaia) Tel.: 94.403.56.00 Helbide elektronikoa: <a href="mailto:contacto@eve.eus">contacto@eve.eus</a> DBO, harremana: <a href="mailto:dpd@eve.eus">dpd@eve.eus</a>
<b>Helburua</b>	-Laguntza-eskabidea aztertzea eta kudeatzea, eta, egoki denean, laguntza ematearen ondorioz ezarritako harremana gauzatzea eta kontrolatzea. -Genero-datuari dagokionez, betetzea borondatezkoa bada ere, Eusko Jaurlaritzaren berdintasunaren aldeko politika eta estrategien esparruan erabiliko da datua, eta monitorizazioari eta estatistikari begira baino ez da baliatuko.

Oinarriak (2020. urtea)

38/36

Mugikortasun eraginkor eta jasagarria sustatzeko pizgarri-programa (Moves II Programa)

2020ko irailaren 16a, asteazkena



## Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)

## Europa egiteko modu bat

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA (Datu pertsonalak babesteari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamendua betez)	
	<p>-EEEekin harremanetan jartzeko hautatutako hizkuntzari dagokionez, betetzea derrigorrezkoa bada ere, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politika eta estrategien esparruan erabiliko da datua, eta monitorizazioari eta estatistikari begira baino ez da baliatuko.</p> <p>-Datuak helburu estatistikoekin tratatu ahal izango dira.</p>
<b>Tratamenduaren legitimazioa eta kontserbazioa</b>	<p>-Interesdunaren adostasuna, eskabidea aurkeztuz adierazita.</p> <p>-Tratamendua ezinbestekoa da guztion intereserako edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak baliatzean egindako zeregin bat betetzeko.</p> <p>Informazioaren kontserbazioa: eskabidea aztertzeko epean eta aplikagarriak diren legezko epeetan. Laguntza emanez gero, datuak laguntza emateko espedientearen zati izango dira aurrerantzean, eta azken hori aktibo dagoen bitartean kontserbatuko dira; eta, gero, aplikagarriak diren legezko epeetan.</p>
<b>Lagapenen hartzaileak</b>	Autonomia-erkidegoko, tokiko, estatuko edo Europar Batasuneko kontroleko erakunde eta agintaritzak, arloan eskumena dutenak.
<b>Interesdunen eskubideak</b>	Interesdunek datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, haien tratamenduaren aurka egiteko edo tratamendua mugatzeko eskubideak nahiz eramangarritasun-eskubidea erabili ahal dituzte EEEngana idatziz joz, « <i>datuen babesari buruzko eskubideak erabiltzea</i> » aditzera emanda.
	Interesdunak eskubidea du emandako adostasuna kentzeko.
	Interesdunek eskubidea dute kontroleko agintaritzen aurrean erreklamazioa aurkezteko (Datuak Babesteko Euskal Bulegoa, <a href="http://www.avpd.eus">www.avpd.eus</a> ; eta (Datuak Babesteko Espainiako Bulegoa, <a href="http://www.agpd.es">www.agpd.es</a> ).
<p>Onuradun orok konpromisoa hartzen du bere gain, bere laguntza-eskabidean adierazitako proiektuaren kudeaketan eta gero, hala dagokionean, hura gauzatzen inplikaturiko edozein pertsona fisiko edo juridikoren edozein datu pertsonal EEeri eman baino lehen, dena delako pertsona fisiko edo juridikoari goian azaldutakoaren berri emateko, bai eta EEeri datu pertsonalak era egokian lagatzeko aplikagarriak diren beste baldintza guztiak betetzeko ere.</p>	

**15. Azken xedapenak.**

- EEEren erabakiak izaera administratiboa du, eta EEEK kudeaturiko dirulaguntzen arloko jurisdikzio eskuduna administrazioarekiko auziena da.
- EEEk eskubidea izango du Mugikortasun eraginkor eta jasagarria sustatzeko pizgarri-programa (Moves II Programa) honen deialdi honen laguntzak jaso dituzten ibilgailu eta instalazioei egindako argazkiak erabiltzeko.
- Onuradunak laguntza-eskabidea kudeatzean akatsak egoteak edo informazioa edo dokumentazioa faltatzeak zuzeneko eragina badu EEEK eman beharreko laguntzaren zenbatekoa zehazterakoan, horren erantzukizun bakarra onuradunarena izango da. Horregatik, inola ez du laguntzaren igoerarako berrikusapenik eragingo benetan egindako gastua handiagoa izateak, laguntza emateko ebazpenean kontuan harturikoa baino.
- Oinarri hauek jasotzen dituzten dirulaguntzak honako hauetan xedaturikoari lotuko zaizkio:
  - 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
  - 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua Onartzekoa.



### Eskualde Garapenerako Europako Funtsa (EGEF)

#### Europa egiteko modu bat

- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu batagina onartzekoa.
- Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamendua, 2014ko ekainaren 26koa, Tratatu 107. eta 108. artikulua aplikatuz barne-merkatuarekin bateragarriak diren zenbait kategoria aitortzekoa, (EBAO 2014 L 187).
- 569/2020 Errege Dekretua, ekainaren 16koa, mugikortasun eraginkor eta jasangarria sustatzeko pizgarri-programa (Moves II programa) arautzekoa.
- Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 Erregelamendua, xedapen arruntak eta xedapen orokorrak ezartzen dituena Eskualde Garapenerako Europako Funtsari, Europako Gizarte Funtsari, Kohesio Funtsari, Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtsari eta Itsasoaren eta Arrantzaren Europako Funtsari buruz, eta Kontseiluaren 1083/2006 Erregelamendua (EB) indargabetzen duena; Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1301/2013 Erregelamendua, Eskualde Garapenerako Europako Funtsari buruzkoa, 1080/2006 Erregelamendua (EB) indargabetzen duena; eta Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1299/2013 Erregelamendua, baita alor horretan hori osatzen edo ordeztzen duen beste edozein araudi ere.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzekoa.
- 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa.